| ANEXO I | I. ERANSKINA |
|---|---|
| **ESTATUTOS DE LA NUEVA ORGANIZACIÓN DE IKASTOLAS** | **IKASTOLEN ELKARTE BERRIAREN ESTATUTUAK** |
| ***Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, S.C.E. Sociedad cooperativa europea de utilidad pública*** | ***Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, E.K.E. Herri onurako europar kooperatiba elkartea*** |
| El texto de estos Estatutos fue entregado a cada ikastola el 20 de abril de 2009.<br><br>El 7 de mayo se recogerán las enmiendas de las ikastolas y el 1 de junio se enviará a cada ikastola el texto oficial que se someterá a votación en el VI Congreso de ikastolas. | Ikastola bakoitzari Estatu hauen testua 2009ko apirilaren 20an eskuratu zitzaien.<br><br>Maiatzaren 27an ikastolen zuzenketa-proposamenak jasoko dira eta ekainaren 1ean Ikastolen VI. Batzarrean bozkatuko den testu ofiziala ikastola bakoitzari helaraziko zaio. |

## CAPITULO I.
## DENOMINACIÓN, OBJETO Y DOMICILIO, DURACIÓN, ÁMBITO TERRITORIAL Y MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS

**Artículo 1. Denominación**

Con la denominación de "**EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA**, S.COOP. de Utilidad Pública", se constituye en Bilbao una Sociedad Cooperativa Europea de Responsabilidad Limitada con sujeción a los Principios y Disposiciones del Reglamento (CE) nº 1.435/2003 del Consejo de la Unión Europea, de 22 de julio de 2003, relativo al Estatuto de la sociedad cooperativa Europea (SCE), en concreto su artículo 8, así como a los demás preceptos legales de aplicación y a los presentes Estatutos.

En todo lo no regulado por el Reglamento (CE) nº 1.435/2003, se aplicará con carácter subsidiario la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, normativa cooperativa vigente en el territorio donde la sociedad tiene su domicilio social, esto es, en la Comunidad Autónoma del País Vasco del Estado Español.

Así mismo, la sociedad adquiere su carácter de Sociedad Cooperativa de Utilidad Pública en base a lo dispuesto en el Decreto 64/1999, de 2 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento sobre procedimiento y requisitos relativos a las sociedades de utilidad pública.

**Artículo 2. Objeto.**

**Uno.** El objeto de esta sociedad cooperativa europea (SCE) consiste en desarrollar el proyecto educativo común de sus socios, el proyecto educativo IKASTOLA, en ayudar a cada socio a desarrollar su proyecto educativo propio, en representar colectivamente a sus socios y promover la educación euskaldun mas allá del ámbito de los propios socios.

A tal fin los procesos clave de la SCE son:

1. I+D: Definir, investigar y desarrollar el modelo IKASTOLA para su cuidado y fortalecimiento.
2. EDUCACIÓN: Ofrecer a las Ikastolas servicios de formación, asesoramiento, evaluación, materiales didácticos y proyectos de I+D.
3. ESTABILIDAD: Gestionar la estabilidad de las ikastolas en su normalización jurídico administrativa, financiación, marco laboral, mapa escolar y en el resto de variables de su viabilidad.
4. ORGANIZACIÓN: Organizar y dinamizar SCE.
5. COMUNICACIÓN EXTERNA: Planificar y desarrollar las relaciones exteriores de SCE
6. EMPRESA: Organizar y gestionar con criterios de excelencia empresarial la SCE.

## I. KAPITULUA
## IZENA, HELBURUA ETA EGOITZA, IRAUPENA, LURRALDE EREMUA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA

**1. artikulua. Izena**

"**EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA**, Herri Onurako Europar Kooperatiba Elkartea" izenarekin eratzen da, Bilbon, Erantzukizun Mugatuko Europar Kooperatiba Elkarte bat Europar Batasuneko Kontseiluak eratutako Europar Kooperatiba Elkartearen (EKE) Estatutuei, zehazki beren 8. artikuluari, dagokion 2003ko uztailaren 22ko 1.435/2003 zk.dun Araudiko (EK) Printzipioen eta Xedapenen mende eta baita aplikagarri zaizkion gainerako legezko aginduen eta Estatutu hauek diotenaren mende ere.

1.435/2003 zk.dun Araudiak (EK) erregulatzen ez dituen gauza guztietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 24ko 4/1993 Kooperatiben Legea aplikatuko da izaera subsidiarioarekin, Lege hori baita elkarte honek bere egoitza duen lurraldean indarrean dagoen kooperatiba-araudia, hots, Espainiako Estatuko Euskal Autonomia Erkidegoan dagoena.

Era berean, elkarteak, Herri Onurako Kooperatiba Elkartearen izaera hartzen du otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuan xedatutakoan oinarrituta, dekretu horrek baitu onetsia herri-onurako elkarteei dagozkien prozedura eta betebeharrei buruzko Araudia.

**2. artikulua. Helburua.**

**Bat.** Europar Kooperatiba Elkarte (EKE) honen helburuak hauek dira: bere bazkideen hezkuntza-proiektu komuna, IKASTOLA hezkuntza-proiektua garatzea, bazkide bakoitzari bere berariazko hezkuntza-proiektua garatzen laguntzea, bere bazkideak talde moduan ordezkatzea eta hezkuntza euskalduna bere bazkideen esparrutik harago ere sustatzea.

Horretarako, EKEren giltzarri diren prozesuak hauek dira:

1. I+G: IKASTOLA eredua definitu, ikertu eta garatzea, Ikastola eredua zaintzeko eta indartzeko.
2. HEZKUNTZA: Ikastolei prestakuntza, aholkularitza, ebaluazioa, ikasmaterialak eta I+G proiektu-zerbitzuak eskaintzea.
3. EGONKORTASUNA: Ikastolen egonkortasuna kudeatzea beren normalkuntza juridiko--administratiboan, finantziazioan, lan-markoan, eskola-mapan eta beren bideragarritasunaren gainerako aldagaietan.
4. ANTOLAKUNTZA: EKE antolatu eta dinamizatzea.
5. KANPO KOMUNIKAZIOA: EKEren kanpo-harremanak planifikatu eta garatzea.
6. ENPRESA: EKE enpresa-bikaintasunezko irizpideekin antolatu eta kudeatzea.

**Dos.** En el desarrollo de este objeto social, la Cooperativa cumplirá las funciones siguientes:

1. Proponer orientaciones, desarrollar planes y programas de actuación y prestación de servicios en beneficio de un mejor desarrollo del proyecto educativo de cada una de las ikastolas, teniendo como objetivo la gestión eficiente de los mismos y respetando las singularidades territoriales.
2. Impulsar, respetando la autonomía de cada ikastola, el cumplimiento de los factores clave de nuestro modelo educativo en euskara en los siguientes aspectos: valores comunes, coordenadas pedagógicas, estrategias y estilo de gestión común y criterios económico-sociales expresados en nuestros planes de gestión anuales.
3. Estimular las relaciones de colaboración y solidaridad entre las ikastolas tanto en los aspectos educativos y económicos cuanto en el intercambio de experiencias de gestión, de personal, de continuidad del alumnado y creación de nuevas ikastolas acordes con la finalidad de la SCE.
4. Coordinar la información y comunicación a desplegar.
5. Llevar a cabo la representación y gestión, por cuenta de las ikastolas de Euskal Herria, ante las instituciones, organismos sociales y la sociedad de este ámbito. Definiendo a tal efecto las líneas estratégicas y dirigirá toda la acción institucional del movimiento de ikastolas.

**Bi.** Elkartearen helburu hau garatzean, Kooperatibak ondorengo eginkizunak beteko ditu:

1. Elkartutako erakundeetako partaide diren ikastoletako bakoitzaren hezkuntza-proiektua hobeto garatzeko orientabideak proposatzea eta jarduera-egitasmoak eta egitarauak nahiz zerbitzu-prestakuntzakoak garatzea, beti ere haien kudeaketa eraginkorra helburutzat izanik eta lurralde desberdinetako berezitasunak errespetatuz.
2. Bazkide den ikastola bakoitzaren autonomia errespetatuz, gure euskarazko hezkuntza-ereduaren giltzarri diren faktoreak betetzea bultzatzea, ondorengo arlo hauetan: balore komunetan, pedagogia-koordenatuetan, kudeaketa komunaren estrategia eta moldeetan eta gure urteroko kudeaketa-planetan adierazitako ekonomia- eta gizarte-irizpideetan.
3. Ikastolen arteko elkarlan- eta elkartasun-harremanak sustatzea, bai hezkuntza-arloan eta ekonomia-arloan eta baita kudeaketa-esperientzien elkartrukean, pertsonalarenean, ikasleen jarraipenean eta Kooperatibaren helburuarekin bat datozen ikastola berrien sorkuntzan ere.
4. Zabaldu behar den informazioa eta komunikazioa koordinatzea.
5. Euskal Herriko ikastolen ordezkaritza eta kudeaketa eremu bereko erakundeen, gizarte-eragileen eta gizartearen aurrean garatzea. Horretarako, ildo estrategikoak definituko ditu eta Ikastola Mugimenduaren jarduera instituzionala zuzenduko du.

**Artículo 3. Domicilio social.**

El domicilio social de la Cooperativa se fija en el Parque Tecnológico de Zamudio, 208 B-1 de Zamudio (Bizkaia), pudiendo constituir sedes secundarias, filiales, oficinas y representaciones tanto en cualquier Estado o territorio de la Unión Europea, como fuera de la misma.

Todo acuerdo de cambio de domicilio social dentro del Estado donde la sociedad tenga su domicilio originario se tramitará de conformidad a lo preceptuado los artículos 74 y 75 de la Ley 4/1993, de 24 de junio de Cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El cambio de sede social a otro Estado miembro de la Unión se regulará conforme a lo establecido en el artículo 7 del Reglamento (CE) nº 1.435/2003.

La sociedad cooperativa se encuentra Registrada en el Registro de Cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco conforme a la legislación aplicable a las cooperativas que tengan su domicilio social en la Comunidad Autónoma Vasca.

**3. artikulua. Elkartearen egoitza.**

Kooperatibaren elkarte-egoitza Bizkaiko Zamudio udalerriko Teknologi Elkartegia, 208 B-1ean finkatu da baina bigarren mailako egoitzak, eskumendekoak, bulegoak eta ordezkaritzak ere izan ditzake, Europar Batasuneko edozein Estatu edo lurraldetan, nahiz haietatik kanpora.

Elkarteak bere jatorrizko egoitza daukan Estatuaren barruan elkartearen egoitzaren aldaketa egiteko erabaki oro ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 24ko 4/1993 Kooperatiben Legeko 74. eta 75. artikuluetan agindutakoaren arabera izapidetuko da. Elkartearen egoitza Europar Batasuneko kide den beste Estatu batera aldatzeko izapidea, 1.435/2003 Araudiko (EK) 7. artikuluan ezarritakoaren arabera erregulatuta egingo da.

Kooperatiba Elkartea Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan erregistratuta dago, beren elkarte-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten kooperatibei aplikagarri zaion legeriaren arabera.

**Artículo 4. Duración.**

La duración de la Cooperativa se establece por tiempo indefinido y dará comienzo a sus operaciones sociales cuando se otorgue la escritura pública fundacional.

**4. artikulua. Iraupena.**

Kooperatibaren iraupena mugarik gabeko denboraldirako ezartzen da eta sortzeko eskritura publikoa gauzatzen denean hasiko ditu bere elkarte-eragiketak.

**Artículo 5. Ámbito territorial**

El ámbito territorial de esta Sociedad Cooperativa Europea, es el de la Unión Europea.

**5. artikulua. Lurralde-eremua.**

Europar Kooperatiba Elkarte honen lurralde-eremua, Europar Batasunarena da.

**Artículo 6. Modificación de Estatutos**

La modificación de los Estatutos Sociales será acordada, por la Asamblea General, con sujeción a los siguientes requisitos:

a) Que se proponga por un número de socios equivalente al 20% de los votos, y formulen un informe escrito con la justificación detallada de la propuesta,
b) que la convocatoria exprese, con la debida claridad, los extremos que se pretenden modificar,
c) que en la convocatoria se haga constar el derecho, de todos los socios, a examinar en el domicilio social el texto íntegro de las modificaciones propuestas y su informe justificativo, y a pedir la entrega o envío gratuito de dichos documentos,
d) que la decisión se adopte por la mayoría cualificada de 2/3 de los votos.

Dicho acuerdo de modificación se elevará a escritura pública y se inscribirá en el Registro de Cooperativas.

**Artículo 7. Idioma Oficial.**

Se establece como idioma oficial de esta Sociedad Cooperativa, el euskera, si bien para su desenvolvimiento habitual se podrán utilizar el castellano y el francés como lenguas cooficiales.

**6. artikulua. Estatutuen aldaketa.**

Elkartearen Estatutuen aldaketak, Elkartearen Batzar Nagusiak erabakiko ditu ondorengo baldintza hauek bete ondoren:

a) Botoen %20ko bazkideen ordezkaritzak proposatuak izan eta txosten idatzi batekin proposamenaren xehetasunak azalduz aurkeztuta,
b) batzar-deiak, aldatu nahi diren arloak behar den argitasunarekin azalduta,
c) batzar-deian proposatutako aldaketen testu osoak eta beren txosten zuritzaileak elkartearen egoitzan aztertzeko bazkide guztiek duten eskubidea eta dokumentu horiek jasotzeko edota berei doan igorriak izatea eskatzeko duten eskubidea jasota.
d) erabakia botoen 2/3eko gehiengo kualifikatuz onartuta.

Aldaketa-erabaki hori eskritura publiko mailara jasoko da eta Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

**7. artikulua. Hizkuntza ofiziala.**

Kooperatiba Elkarte honen hizkuntza ofizialtzat euskara ezartzen da, nahiz eta, bere ohiko zereginetarako espainiera eta frantsesa ere hizkuntza ofizialkide moduan erabili ahal izango dituen.

**CAPITULO II.**
**DE LOS SOCIOS**

SECCIÓN 1ª. ADMISIÓN DE SOCIOS

**Artículo 8. Personas que pueden ser socios**

**Uno.** El número de socios de la SCE es ilimitado, si bien en ningún caso podrá ser inferior a cinco y residentes en al menos dos estados miembros de la Unión Europea, o que estén sujetos a la Ley de dos estados miembros.

Pueden ser socios de la SCE todas las personas físicas o jurídicas que sean titulares de una ikastola y con capacidad para colaborar con el objeto social de la SCE y que, conscientes de los derechos y obligaciones asumidos al suscribir estos Estatutos, se comprometan a desempeñarlo con lealtad y eficacia.

A los efectos de estos Estatutos, se entiende por "ikastola" a la institución educativa euskaldun, con personalidad jurídica propia, que gestiona su proyecto educativo mediante la cooperación de su alumnado, padres y madres y profesionales, en interrelación con su entorno próximo, e impulsando el modelo IKASTOLA en la organización colectiva de ikastolas para desarrollar la educación y escuela euskaldunes y contribuir a la cohesión social.

**Artículo 9. Requisitos para la admisión**

**Uno.** El número de socios es ilimitado y su vinculación societaria a la Cooperativa será en todo caso indefinida.

**Dos.** Para la admisión de un socio deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Tener capacidad para contratar y obligarse.
b) Aceptar formalmente el objeto de los presentes Estatutos y demás acuerdos en vigor en el momento de la admisión.

**Tres.** Para ser admitido como socio, las entidades o personas jurídicas que soliciten incorporarse como socio, la petición deberá contener además las siguientes indicaciones:

- Denominación o razón social, sede y la actividad que tiene por objeto.
- Estado miembro de la Unión Europea al que pertenece o, en su caso, estado extranjero en el que tiene la sede.
- Cargo de la persona que firma la solicitud en nombre de la persona jurídica.
- Número de socios, asociados o participantes que constituyen al persona jurídica solicitante.
- El importe de la cuota se compromete a suscribir.

**II. KAPITULUA**
**BAZKIDEAK**

1\. ATALA BAZKIDEEN ONARPENA

**8. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak.**

**Bat.** EKEko bazkide-kopurua mugagabea da, baina ezein kasutan ere ez da izango bost baino gutxiagokoa eta gutxienez ere Europar Batasunean partaide direnetako bi estatutan bizi direnak edota partaide diren bi estatutako Legepean daudenak izango dira.

EKEren elkarte-helburuaren arabera elkarlan-jardunerako gaitasuna duten eta ikastolaren batean titular diren pertsona fisiko edo juridiko guztiak izan daitezke EKEko bazkide, Estatutu hauek izenpetzean beren gain hartzen dituzten eskubide eta betebehar guztiez jabetuta, leialtasunez eta eraginkortasunez bazkidetzan jarduteko konpromisoa hartzen dutenean.

Estatutu hauen ondorioetarako, hau hartzen da "ikastolatzat": nortasun juridiko propioa duen hezkuntza-erakunde euskalduna da, bere hezkuntza-proiektua kudeatzen duena, bere ikasle, ikasleen guraso eta profesionalen lankidetza bidez, bere ingurune hurbilarekin elkarreraginean, eta ikastolen erakunde kolektiboan IKASTOLA eredua sustatuz, eskola eta hezkuntza euskaldunak garatzeko eta gizartearen kohesioan laguntzeko.

**9. artikulua. Bazkideak onartzeko baldintzak.**

**Bat.** Bazkide-kopurua mugagabea da eta beren Kooperatibarekiko elkarte-lotura, kasu orotan ere, mugagabea izango da.

**Bi.** Bazkide bat onartua izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

a) Kontratatzeko eta bere burua obligatzeko ahalmena izatea.
b) Estatutu hauen helburua eta onartzeko unean indarrean dauden gainerako erabakiak ere formalki onartzea.

**Hiru.** Kooperatiban bazkide gisa sartu eta onartuak izateko eskaera egiten duten erakunde edo pertsona juridikoek egindako eskaerek, ondorengo adierazgarriak ere izan beharko dituzte:

- Erakundearen edo Elkartearen izena, egoitza eta helburutzat duen jarduera.
- Europar Batasuneko partaideetatik zein Estatutakoa den edota, kasua bada, egoitza zein estatu arrotzetan duen.
- Pertsona juridikoaren izenean eskaera sinatu duen pertsonaren kargua.
- Eskaera egin duen pertsona juridikoak duen bazkideen, elkartuen edo partaideen kopurua.
- Ordaintzeko konpromisoa hartzen duen kuotaren kopurua.

El interesado persona física, deberá presentar la oportuna solicitud en la que deberá especificar los siguientes datos:

- Nombre, apellido, lugar y fecha de nacimiento, residencia, ciudadanía y nacionalidad.
- Indicación de los requisitos previstos para ser socio.
- Importe de la cuota que se compromete a suscribir, que no podrá ser en ningún caso inferior a lo previsto en el art. 55-uno de los presentes estatutos.
- Declaración de conocer y aceptar la legislación cooperativa vigente y aplicable a la presente sociedad, así como los presentes estatutos y, en su caso, los reglamentos de régimen interno, vigentes y aprobados por los órganos sociales.
- Categoría de socio a la que se aspira pertenecer.

**Artículo 10. Decisiones sobre la admisión**

**Uno.** La decisión sobre la admisión de socios corresponde al Consejo Rector, requiriéndose para ello el acuerdo favorable en Consejo Rector de la totalidad de los votos presentes y representados y que sólo se podrá limitar por justa causa fundada:

a) en la no cobertura de los requisitos objetivos establecidos para la admisión,

b) en las necesidades de nuevos socios.

**Dos.** La aceptación y la denegación de la admisión no podrán producirse por causas que supongan una discriminación arbitraria o ilícita, en relación con el objeto social.

**Artículo 11. Procedimiento de admisión**

**Uno.** La solicitud de admisión como socio se formulará por escrito con los requisitos previstos en el artículo 8 ante el Consejo Rector, quien resolverá en un plazo no superior a sesenta días a contar desde el recibo de aquella.

**Dos.** La decisión sobre la admisión se comunicará por escrito al interesado y será motivada en el caso de resolución denegatoria. Transcurrido el plazo señalado sin resolución expresa se entenderá aprobada la admisión.

**Artículo 12. Recursos contra las resoluciones sobre la admisión**

**Uno.** El acuerdo denegatorio podrá ser recurrido, por el solicitante, ante la Asamblea General en el plazo de veinte días contados desde la notificación. La Asamblea General resolverá por mayoría cualificada de 2/3, previa audiencia del interesado, en el plazo de 45 días desde la recepción del recurso, mediante votación secreta.

**Dos.** El acuerdo aprobatorio podrá ser recurrido, a petición de al menos un 10% de los socios, ante la Asamblea General en el plazo de veinte días contados desde su publicación en el Tablero de Anuncios del domicilio social y de los centros de trabajo o en la página web de la SCE o comunicación por correo electrónico a los socios, y dicha Asamblea General resolverá en el plazo de 30 días desde la recepción del recurso.

Pertsona fisikoa den interesatuak, ondorengo datuak dituen eskaera aurkeztu beharko du:

- Izena, deiturak, jaioterria eta jaiotza-data, bizilekua, hiritartasuna eta nazionalitatea.
- Bazkide izateko aurreikusitako baldintzen adierazpena.
- Ordaintzeko konpromisoa hartzen duen kuotaren zenbatekoa, zenbateko hori ezein kasutan ere ez da estatutu hauetan 55.-bat artikuluan aurreikusitakoa baino txikiagoa izango.
- Elkarte honetan indarrean eta aplikagarri izango den kooperatiba-legeria, estatutu hauek eta, kasua bada, elkarteko organoek onetsi eta indarrean dauden barne-erregimeneko araudiak ezagutzen eta onartzen dituela dioen aitorpena.
- Zein bazkide motatakoa izan nahi duen.

**10. artikulua. Onarpenari buruzko erabakiak.**

**Bat.** Bazkideen onarpenaz hartu beharreko erabakia hartzea Kooperatibako Artezkaritza Kontseiluari dagokio, baina horretarako Artezkaritza Kontseiluko boto guztien, bertaratuen eta ordezkatuen, aldeko erabakia behar da; ondo oinarritutako arrazoi zuzenak bakarrik muga lezake erabaki hori:

a) onarpenerako ezarritako helburuetan izendatutako betebeharrak ez betetzeak,

b) bazkide berrien beharrek.

**Bi.** Onarpena baiestea edo ezestea ez da egingo elkartearen helburuarekiko ausazko bazterkeria edo zilegitasun-gabezia duten arrazoiak erabiltzeagatik.

**11. artikulua. Onartzeko prozedura.**

**Bat.** Bazkide gisa onartzeko eskaera idatziz egingo zaio Artezkaritza Kontseiluari 8. artikuluan aurreikusitako betebeharrak beteta eta, Artezkaritza Kontseiluak, eskaera jasotako datatik zenbatutako hirurogei egun baino luzeagoa izango ez den epean emango du ebazpena.

**Bi.** Onarpenari buruzko erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesatuari eta ezezkoa den kasuan arrazoiak ere adierazi egingo dira. Aipatutako epea inolako ebazpenik eman gabe igaroz gero, onarpena onartutzat emango da.

**12. artikulua. Onarpenaz emandako ebazpenen aurkako helegiteak.**

**Bat.** Ezezko ebazpenari eskatzaileak helegitea jarri ahal izango dio eta Batzar Nagusiari aurkeztu jakinarazpena jasotako egunetik zenbatutako hogei eguneko epean. Batzar Nagusiak, interesatuari aldez aurretik entzunda, bozketa sekretu bidez eta 2/3eko gehiengo kualifikatuz ebatziko du helegitea jasotako egunetik zenbatutako 45 eguneko epean.

**Bi.** Onespen-erabakiari aurka egin ahal izango dio gutxienez ere bazkideen %10ak Batzar Nagusiari helegitea aurkeztuta, elkartearen egoitzako ohar-taulan eta lantokietakoetan edo EKEren web orrian edo bazkideei posta elektronikoaz igorritako jakinarazpenean erabakia argitaratutako datatik zenbatutako hogei eguneko epean eta, Batzar Nagusiak, helegitea jaso ondorengo 30 eguneko epean eman beharko du ebazpena.

SECCIÓN 2ª. PERDIDA DE LA CONDICION DE SOCIO

**Artículo 13. Perdida de la condición de socio.**

La condición de socio se perderá por alguno de los siguientes motivos:

- Renuncia o solicitud de baja como socio.
- Expulsión, por incumplimiento muy grave de disposiciones u obligaciones legales o por actos lesivos o contrarios a los intereses de la cooperativa.
- Disolución.
- Concurso Acreedores.
- En los demás supuestos previstos en los presentes estatutos o en la legislación cooperativa vigente.

**Artículo 14. Baja voluntaria.**

**Uno.** Todo socio puede causar baja voluntariamente en la Cooperativa, en cualquier momento, mediante preaviso por escrito al Consejo Rector con un año de antelación para las personas físicas y 6 meses las personas jurídicas, salvo causa justificada.

**Dos.** Las bajas voluntarias pueden ser justificadas y no justificadas.

**Tres.** Tendrán la consideración de bajas voluntarias no justificadas:

a) el incumplimiento de lo previsto en el apartado Uno, así como las bajas que no respeten los plazos mínimos de permanencia pactados expresamente, salvo que el Consejo Rector, atendiendo las circunstancias del caso, acordara lo contrario, sin perjuicio de que pueda exigirse al socio el cumplimiento de los compromisos adquiridos y la correspondiente indemnización de daños y perjuicios,

b) cuando el socio vaya a realizar actividades competitivas con las de la Cooperativa.

**Cuatro.** Tendrán la consideración de bajas voluntarias justificadas:

a) la del socio que -en los casos de fusión o escisión de la Cooperativa, cambio de clase, alteración sustancial de su objeto social o la exigencia de nuevas aportaciones obligatorias al capital- haya votado en contra del acuerdo correspondiente o, no habiendo asistido a tal Asamblea General, exprese su disconformidad con dicho acuerdo,

b) las que se derivan de lo dispuesto por el artículo 85.3 de la Ley 4/1993, en el caso de transformación de la Cooperativa en otro tipo de sociedad,

c) todas las demás bajas voluntarias no contempladas en el apartado Tres anterior.

**Artículo 15. Baja obligatoria**

**Uno.** Son causas de baja obligatoria de los socios:

- la pérdida de los requisitos legales exigidos para serlo,
- el incumplimiento de las obligaciones relacionadas con la aportación obligatoria al capital social, y
- la expulsión.

2. ATALA. BAZKIDE IZAERAREN GALERA.

**13. artikulua. Bazkide-izaeraren galera.**

Bazkide-izaera, ondorengo arrazoietakoren batengatik galduko da:

- Bazkide izateari uko eginda edo baja-eskaera aurkeztuta.
- Legezko xedapen edo betebeharrak ez betetzeagatik edota kooperatibaren interesen aurkako edo kalterako ekintzak egiteagatik hutsegite larria egin eta kanporatua izateagatik.
- Erakundea desegiteagatik.
- Hartzekodunen lehiaketagatik.
- Estatutu hauetan edota indarrean den kooperatiben legerian aurreikusita dauden gainerako kasuengatik.

**14. artikulua. Borondatezko baja.**

**Bat.** Bazkide orok, edozein unetan, bere borondatez eman dezake baja Kooperatiban aldez aurretik idatziz Artezkaritza Kontseiluari berri emanda; urtebetez aurretik pertsona fisikoen kasuan eta 6 hilabetez aurretik pertsona juridikoen kasuan, arrazoi justifikaturen bat den kasuan salbu.

**Bi.** Borondatezko bajak justifikatuak eta justifikatu gabeak izan daitezke.

**Hiru.** Borondatezko baja justifikatu gabetzat hartuko dira:

a) artikulu honetako bat atalean aurreikusitakoa ez betetzea eta espresuki hitzartutako gutxieneko epeak errespetatu gabe baja ematea, Artezkaritza Kontseiluak, kasuari dagozkion inguruabarrei so eginez aurkakoa erabaki dezakeenean salbu, baina beti ere bazkideari aldez aurretik bere gain hartutako konpromisoak betetzea eta legozkiokeen kalte eta galeren ordainak exijitzearen kalterik gabe,

b) bazkideak Kooperatibaren jarduerekiko lehiakorrak diren jarduerak egitea.

**Lau.** Borondatezko baja justifikatu trataera izango dute:

a) –Kooperatibaren bat-egite edo bereizte kasuetan, kooperatiba motaren aldaketetan, elkarte-helburuek funtsezko aldaketa izatean edo kapitalari derrigorrezko kapital-ekarpen berriak egiteko exijentzien kasuan– halako erabakiaren aurkako botoa eman duten bazkideek edota halakoak erabaki ziren Batzar Nagusira joan ez eta erabakiarekiko beren desadostasuna azaltzen dutenek,

b) 4/1993 Legeko 85.3 artikuluan xedatutik ondorioztatzen diren kasuek, Kooperatiba beste elkarte edo sozietate mota bat izatera eraldatzen denean, l

c) artikulu honetako hirugarren atalean aurreikusi gabeko gainerako borondatezko baja guztiek.

**15. artikulua. Derrigorrezko baja.**

**Bat.** Bazkideen derrigorrezko baja-kasuak izango dira:

- bazkide izateko legez exijitutako baldintzen galera, eta
- elkarteko kapitalaren derrigorrezko ekarpenekin zerikusia duten betebeharrak ez betetzea,
- kanporatzea.

**Dos.** La baja obligatoria será acordada por el Consejo Rector por unanimidad, previa audiencia del interesado, de oficio, o a petición de cualquier otro socio o del propio afectado.

El acuerdo del Consejo Rector podrá ser recurrido, por el afectado, ante la Asamblea General en el plazo de treinta días contados desde la notificación, quien resolverá, previa audiencia del interesado, en el plazo de 45 días desde la recepción del recurso.

**Tres.** El acuerdo del Consejo Rector será ejecutivo desde que sea notificada la ratificación de la Asamblea General o una vez transcurrido el plazo para recurrir.

En tanto el acuerdo no sea ejecutivo el socio conservará su derecho de voto en la Asamblea General.

**Cuatro.** La baja obligatoria tendrá la consideración de justificada en los casos siguientes: cuando la pérdida de los requisitos para ser socio no sea consecuencia de la voluntad del socio de incumplir sus obligaciones con la Cooperativa o de beneficiarse indebidamente con su baja obligatoria y en el supuesto contemplado en el apartado siguiente.

**Artículo 16. Efectos y recursos de la baja**

**Uno.** La pérdida de la condición de socio, sea voluntaria u obligatoria, supone el cese definitivo como socio en la Cooperativa.

**Dos.** La calificación de las bajas es competencia del Consejo Rector. El socio disconforme con las resoluciones sobre la calificación, o efectos de su baja, tanto sea voluntaria como obligatoria, podrá utilizar los recursos y cauces establecidos en el artículo 29 para el caso de expulsión.

<u>SECCIÓN 3ª. OBLIGACIONES Y DERECHOS DE LOS SOCIOS</u>

**Artículo 17. Comienzo de los derechos y obligaciones sociales**

Los derechos y las obligaciones sociales comenzarán a surtir efecto desde el día en que se adoptó el acuerdo de admisión, salvo que fuera recurrido, en cuyo caso quedará en suspenso hasta que sea resuelto por la Asamblea General.

**Artículo 18. Obligaciones de los socios**

**Uno.** Los socios están obligados a:

a) Asistir a las reuniones de la Asamblea General y demás órganos a los que fuesen convocados.
b) Aceptar y servir con diligencia los cargos para los que fueran elegidos, salvo justa causa de excusa.

**Bi.** Derrigorrezko baja Artezkaritza Kontseiluak erabaki beharko du aho batez, aldez aurretik interesatuari entzunda, ofizioz edota beste edozein bazkidek edo erasana den bazkideak berak eskatuta.

Artezkaritza Kontseiluaren erabakiari helegitea jar diezaioke erasandako bazkideak Batzar Nagusiaren aurrean jakinarazpena jasotako egunetik zenbatutako hogeita hamar eguneko epean eta Batzar Nagusiak ebatziko du gaia, aldez aurretik interesatuari entzunda, helegitea jasotako egunetik zenbatutako 45 eguneko epean.

**Hiru.** Artezkaritza Kontseiluaren erabakia betearazlea edo exekutiboa izango da Batzar Nagusiak berresten duen egunetik aurrera edota helegitea jartzeko epea igarotzen den egunetik aurrera.

Erabakia betearazlea edo exekutiboa ez den bitartean, bazkideak bere boto-eskubidea izango du Batzar Nagusian.

**Lau.** Derrigorrezko baja justifikatutzat hartuko da ondorengo kasuetan: bazkide izateko baldintzen galera bazkideak Kooperatiban dituen betebeharrak ez betetzeko borondaterik ezaren ondorio ez denean edo bere derrigorrezko bajaren bidez, eta ondorengo atalean aurreikusten den kasuan, bidegabeko onurak izatea ondorio ez duenean.

**16. artikulua. Bajaren ondorioak eta helegiteak.**

**Bat.** Bazkide-izaeraren galerak, dela borondatezkoak edota derrigorrezkoak, Kooperatibatik bazkide legez behin betiko kanporatuta gelditzea ekarriko du.

**Bi.** Baja-kalifikazioa ematea Artezkaritza Kontseiluaren eskumenekoa da. Baja-kalifikazioaz edo bere bajaren ondorioez emandako ebazpenekin, bai borondatezkoekin eta baita derrigorrezkoekin ere, ados ez legokeen bazkideak kanporatze- edo bidaltze-kasuetarako 29. artikuluan ezarritako helegiteak eta bideak erabili ahal izango ditu.

<u>3. ATALA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK</u>

**17. artikulua. Elkartearekiko eskubide eta betebeharren hasiera.**

Elkartearekiko eskubideak eta betebeharrak bazkide izateko onarpen-erabakia onartzen den egun beretik jarriko dira indarrean eta eragina izango dute, erabakiari helegitea jartzen zaionean salbu, kasu horretan etenda gelditukо baitira Batzar Nagusiak azken ebazpena onartu arte.

**18. artikulua. Bazkideen betebeharrak.**

**Bat.** Bazkideek betebehar hauek izango dituzte:

a) Batzar Nagusietara eta elkartearen gainerako organoek deitutako bileretara joatea.
b) Karguak betetzeko hautatuak izatean haiek onartzea eta arretaz zerbitzatzea, desenkusa-arrazoi zuzenen bat denean salbu.

c) Cumplir los acuerdos válidamente adoptados por los órganos sociales.
d) Asumir las obligaciones económicas que se deriven de su condición de socio.
e) Participar y realizar las actividades necesarias para la consecución del Objeto Social descrito en los presentes Estatutos y en el modo planificado previamente por el órgano competente.
f) Contribuir a un adecuado clima social y a una respetuosa convivencia en el seno de la Cooperativa.
g) No realizar, ni colaborar en actividades competitivas a las de la Cooperativa salvo que sean expresamente autorizados por el Consejo Rector.
h) Asumir la imputación de pérdidas en la cuantía acordada por la Asamblea General.
i) Desembolsar sus aportaciones al Capital en las condiciones previstas.
j) Guardar secreto sobre actividades y datos de la Cooperativa cuando su divulgación pueda perjudicar los intereses sociales.
k) No manifestarse públicamente en términos que supongan manifiesto desprestigio de la Cooperativa.
l) Contribuir, en los términos y condiciones establecidos, a los fines propios de la cooperativa, salvo que sean expresamente autorizados para no hacerlo por los miembros del Consejo Rector.
m) Sufragar los gastos de los servicios o actividades comunes.
n) Los demás que resulten de las normas legales y de estos Estatutos.

**Dos.** Estas obligaciones sociales, iguales para todos los socios, serán cumplidas de conformidad con las normas legales y estatutarias y los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de la Cooperativa.

**Artículo 19. Derechos de los socios**

**Uno.** Los socios tienen derecho a:

a) Formular propuestas y participar con voz y voto en la adopción de los acuerdos de la Asamblea General y de los demás órganos de que formen parte.
b) Elegir y ser elegidos para los cargos de los órganos de la Cooperativa.
c) Participar en todas las actividades de la Cooperativa, sin discriminación.
d) Promover modificaciones del ordenamiento jurídico interno dentro del ámbito de estos Estatutos.
e) Percibir el interés de las aportaciones en la forma y cuantía que se establezca y el retorno cooperativo, en su caso.
f) Beneficiarse de los servicios comunes establecidos por la Cooperativa
g) Contribuir a la creación de vínculos con otras organizaciones cooperativas y afines.
h) Beneficiarse de la política común de recursos humanos y en particular de las transferencias intersocios de personal, tanto por razones de gestión provisional como por excedentes de personal, conforme a la normativa interna de la Cooperativa.
i) Recibir préstamos, subvenciones y otras ayudas financieras de la Cooperativa, o de las demás entidades socios, conforme a lo que al respecto dispongan los órganos

c) Elkartearen organoek baliozkotasunarekin onartutako erabakiak betetzea.
d) Bazkide izatetik ondorioztatzen diren ekonomia-betebeharrak beren gain hartzea.
e) Estatutu hauetan eta eskuduntza duen organoak aldez aurretik planifikatutako moduan deskribatutako elkartearen helburuak betetzeko beharrezkoak diren jardueretan parte hartzea eta haiek burutzea.
f) Elkartearen barnean giro egokia eta errespetuzko elkarbizitza izan daitezen ahaleginak egitea.
g) Kooperatibaren jarduerekiko lehiakorrak diren jarduerak ez egitea eta halakoetan parte ere ez hartzea, Artezkaritza Kontseiluak espresuki baimenduak ez badira.
h) Galeren ezarpena beren gain hartzea Batzar Nagusiak erabakitako kopuruan.
i) Aurreikusitako baldintzetan Kapitalari egin beharreko ekarpenak egitea.
j) Kooperatibaren jarduerei eta datuei buruzko isiltasuna gordetzea, datu horien zabalkundeak elkartearen interesak kalte ditzakeenean.
k) Kooperatibaren izen txarra nabarmenkiro zabaltzeko eran publikoki adierazpenak ez egitea.
l) Kooperatibaren berariazko helburuak lortzeko jarritako neurri eta baldintzetan esku hartzea, Artezkaritza Kontseiluko partaideek espresuki hala ez egiteko baimenduak diren kasuetan salbu.
m) Zerbitzu eta jarduera komunen gastuak ordaintzea.
n) Legezko arauetatik eta Estatutu hauetatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharrak.

**Bi.** Elkartearekiko betebehar horiek, bazkide guztientzat berdinak direnak, legezko arauen, estatutuetakoen eta Kooperatibako organoek baliozkotasunez erabakitakoen arabera bete beharko dira.

**19. artikulua. Bazkideen eskubideak.**

**Bat.** Bazkideek eskubide hauek dituzte:

a) Batzar Nagusiaren eta parte hartzen duten gainerako organoen erabakiak onartzeko proposamenak egitea eta ahotsarekin eta botoarekin erabakitzeko parte hartzea.
b) Kooperatibaren organoetako karguak betetzeko hautaketak egitea eta hautatua izatea.
c) Kooperatibaren jarduera guztietan inolako berezikeriarik gabe parte hartzea.
d) Estatutu hauen arloan barne-ordenamendu juridikoaren aldaketak eragitea.
e) Ekarpenen interesak eta, kasua bada, kooperatiba-itzulkinak jasotzea ezartzen diren modu eta kopuruetan.
f) Kooperatibak ezarritako zerbitzu komunen onurez baliatzea.
g) Beste kooperatiba-antolakuntza batzuekin eta antzekoekin loturak sortzen laguntzea.
h) Giza baliabideen politika komunaren onurak jasotzea eta bereziki pertsonalaren bazkide arteko transferentziez baliatzea, bai behin-behineko kudeaketa-arrazoiengatik eta baita pertsonal-soberakinengatik ere, Kooperatibaren barne-araudiaren arabera.
i) Kooperatibatik edota gainerako bazkide-erakundeetatik maileguak, diru-laguntzak eta beste finantziazio-laguntza batzuk jasotzea, gai horrekiko eskuduntza duten organoek

competentes de la misma.

j) Exigir el cumplimiento de lo establecido en los presentes Estatutos, a través de las actuaciones que sean precisas.
k) Exigir la información de acuerdo con lo establecido en el artículo siguiente.
l) La actualización y el reembolso de sus aportaciones al capital social cuando procedan.
m) Los demás que resulten de las Leyes y estos Estatutos.

**Dos.** Estos derechos sociales, iguales para todos los socios, serán ejercidos de conformidad con las normas legales y estatutarias y los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de la Cooperativa.

**Artículo 20. Derecho de información**

**Uno.** Todo socio tendrá derecho a:

a) Solicitar una copia de los Estatutos Sociales de la Cooperativa y del Reglamento Interno si lo hubiere.
b) Examinar el Libro Registro de Socios y el Libro de Actas de la Asamblea General, y a obtener copia certificada del acta y de los acuerdos adoptados en la Asamblea General, así como certificación de las inscripciones en el Libro Registro de Socios, previa solicitud motivada.
c) Solicitar copia certificada de los acuerdos del Consejo Rector que le afecten individualmente.
d) Ser informado, por el Consejo Rector, sobre su situación económica en relación con la Cooperativa, en el plazo máximo de un mes desde su solicitud.
e) Solicitar por escrito al Consejo Rector las aclaraciones o informes que considere necesarios sobre cualquier aspecto del funcionamiento o de los resultados de la Cooperativa, que deberán ser respondidos en la primera Asamblea General que se celebre pasados quince días desde la presentación del escrito.
f) Tener a disposición, en el domicilio social, los documentos que reflejen las cuentas anuales y la propuesta de aplicación de resultados para que puedan ser examinados durante el plazo de convocatoria.
g) Solicitar por escrito, con al menos cinco días de antelación, explicaciones referentes a la documentación antes citada para que sean respondidas en el acto de la Asamblea.
h) Examinar, en el domicilio social y durante el plazo de convocatoria, el informe de gestión de la auditoría de cuentas en su caso.

**Dos.** Sin perjuicio de lo establecido en el apartado anterior, un número de socios que represente al menos el 10% de los votos sociales podrá solicitar en todo momento por escrito la información que consideren necesaria. El Consejo Rector deberá proporcionar por escrito la información solicitada en un plazo no superior a treinta días.

**Tres.** En todo caso, el Consejo Rector deberá informar a los socios, trimestralmente al menos y

xedatzen dutenaren arabera.

j) Estatutu hauetan ezarritakoa betetzea exijitzea, horretarako beharrezkoak diren jardunen bitartez.
k) Informazioa jasotzeko eskubidea ondorengo artikuluan ezarritakoaren arabera.
l) Elkarteko kapitalari bazkideak egindako ekarpenen eguneratzea eta itzultzea bidezkoa denean.
m) Legeetatik eta Estatutu hauetatik ondorioztatzen diren gainerakoak.

**Bi.** Elkartean bazkideek izango dituzten eskubide hauek, bazkide guztientzat berdinak izango dira eta legezko arauen, estatutuetako arauen eta Kooperatibako organoek baliozkotasunez onartutako erabakien arabera gauzatuak izango dira.

**20. artikulua. Informazio-eskubidea.**

**Bat.** Bazkide orok informazio-eskubide hauek izango ditu:

a) Kooperatiba Elkartearen Estatutuen kopia bat eskatzekoa eta, baldin balego, baita Barne Erregimeneko Araudiarena ere.
b) Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusietako Akten Liburua aztertzea, Batzar Nagusiak onartutako akten eta erabakien kopia ziurtatu bat lortzeko eskubidea eta baita Bazkideen Erregistro Liburuan egindako idazketen ziurtagiria ere, aldez aurretik eskaera arrazoitua egin ondoren.
c) Bazkidea bera zuzenean erasaten duten Artezkaritza Kontseiluaren erabakien kopia ziurtatua eskatzeko eskubidea.
d) Artezkaritza Kontseiluak Kooperatiban bazkidea berak duen egoera ekonomikoaz informatua izateko eskubidea, eskaera egiten duenetik hasita zenbatutako hilabeteko epean.
e) Bazkideak Artezkaritza Kontseiluari Kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen edozein atalez beharrezkoak iruditzen zaizkion argitasunak edo emaitzak eskatzeko eskubidea; Artezkaritza Kontseiluak eskatutako informazio horiek eskaera-idazkia aurkeztutako egunetik zenbatutako hamabost eguneko epean eman beharko ditu.
f) Batzar-deiaren epeak dirauen artean, urteko kontuak eta emaitzen aplikazio-proposamena dituzten dokumentuak Elkartearen egoitzan bazkideen esku edukitzea, nahi dutenek ikusi ahal izan ditzaten.
g) Lehen aipatutako dokumentuei dagozkien azalpenak Batzar Nagusian jaso ahal izateko gutxienez ere bost egunez aurretik idatziz eskatzeko eskubidea.
h) Batzar-deiak dirauen epearen barruan, kudeaketa-txostena eta, kasua bada, kontuen auditoria elkartearen egoitzan aztertzeko eskubidea.

**Bi.** Aurreko atalean ezarritakoaren kalterik gabe, gutxienez ere elkarteko botoen %10a ordezkatzen duen bazkide-taldeak, edozein unetan eta idatziz, egokia iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango du. Artezkaritza Kontseiluak idatziz eman beharko dio talde horri eskatutako informazioa, eskatutako egunetik zenbatuta gehienera ere hogeita hamar egunekoa izango den epean.

**Hiru.** Edozein kasutan ere, Artezkaritza Kontseiluak, gutxienez ere hiruhilero eta egokiak iruditzen

por los cauces que estime convenientes, de las principales variables socio-económicas de la Cooperativa.

**Artículo 21. Límites del derecho de información**
**Uno.** El Consejo Rector sólo podrá denegar, motivadamente, la información cuando la solicitud pueda causar un perjuicio grave a la cooperativa o sea incompatible con la obligación legal de secreto. No procederá esta excepción cuando la Asamblea General decidiera lo contrario.

**Dos.** Cuando la información a un socio sea denegada, este podrá solicitar que conste en el acta de la Asamblea General su solicitud y los motivos alegados para su denegación.

- No podrán presentarse a las elecciones locales, territoriales, autonómicas, cantonales, estatales o europeas. En consecuencia no podrá ostentar ningún cargo o puesto de representación popular en Ayuntamientos, Diputaciones, Juntas Generales, Parlamentos, Consejos Generales, Consejos Regionales, Gobiernos, ni trabajar para dichos cargos o puestos (asesoría de grupo juntero, parlamentario…).

3. Kooperatibako langile, inbertsio, finantza eta abarri buruzko politikak landu eta Artezkaritza Kontseiluari proposatzea; eta onartzen diren erabakiak eta neurriak egikaritzea.
4. Artezkaritza Kontseiluari Kooperatibaren zuzendaritzako izan litezkeenak eta elkartearen helburuak betetzeko beharrezkoak diren gainerako agintariak edo exekutiboak proposatzea.
5. Bazkideak edo soldatapekoak diren langileak kontrolatzea eta koordinatzea, ezarritako politiken arabera dagozkien kontratuak sinatuz.
6. Eusmeneko kuota kalkulatzeko, bazkideen derrigorrezko gastu komunak osatzen dituzten kontzeptuak eta zerbitzuak Artezkaritza Kontseiluari onartzeko proposatzea.
7. Bazkideei eskaintzen zaizkien zerbitzu desberdinak zuzentzea, bai komunak eta baita borondatezkoak ere.
8. Batzar Nagusiak eta Artezkaritza Kontseiluak emandako jarraibideak garatu eta egikaritzeko beharrezkoa den beste edozein eginkizun.

**Bost.-** Zuzendaritza Orokorrak Artezkaritza Kontseiluak onartutako erabakien egikaritzapenaz eta hark egiteko agindutako zerbitzuen prestakuntza zuzenaz erantzun beharko du.

**52. artikulua. Lehendakariaren eta Zuzendariaren bateraezintasunak.**
EKEren Lehendakariak eta Zuzendariak bete ahal izango ez dituzten jarduerak eta karguak, honako hauek izango dira:

- Alderdi politiko, Sindikatu eta Enpresa Erakundeetako herriko, lurraldeko edo nazio-mailako zuzendaritza-karguetan egoterik ez dute izango eta ezta horietako sektore edo lurralderen bateko kargurik edo ardurarik izaterik ere.
- Ezein Herri-administraziotan ere ez dute izendapen libre bidez hornitzen den posturik bete ahal izango, ez eta behin-behineko funtzionario edo zuzendaritza profesionaleko pertsona izan edota hauteskunde bidez hautatutako pertsonek osotasunean edo partzialki erabakitakoen baitan kargu-izendapenak edo kentzeak egiten diren postuetan beste edozein kargu, postu edo eginkizun bete ere.
- Era berean ez dute zuzendaritza-posturik edo eginkizunik bete ahal izango nagusiki Zuzenbide publikoko erakundeek finantzatutako jarduerak dituen eta bere kudeaketa haien kontrolpean duen ezein erakundetan ere (Institutu, Organismo Autonomo, Ekonomia Mistoko Elkarte, Fundazio eta gisakoetan).
- Herriko, lurraldeko, autonomiako, departamenduko, estatuko edo Europako hauteskundeetara aurkezterik ez dute izango. Horren ondorioz, ez dute kargurik edo herri-ordezkaritza posturik betetzerik izango Udaletan, Aldundietan, Batzar Nagusietan, Legebiltzarretan, Kontseilu Orokor edo Nagusietan, Eskualdeko Kontseiluetan, edota Gobernuetan, ez eta kargu edo postu horientzako lan egin ere (Batzar Nagusietako batzarkide-taldeen, parlamentarien, eta abarren, aholkulari izan).

## CAPITULO IV.
## DEL RÉGIMEN ECONÓMICO

**Artículo 53. Responsabilidad**

**Uno.** Los socios no responden individualmente de las deudas sociales, por lo que su responsabilidad está limitada al importe de las participaciones sociales que hubieran suscrito.

**Dos.** Una vez determinado el importe de las aportaciones a reembolsar, el socio que cause baja no tendrá responsabilidad alguna en las deudas que hubiera contraído la Cooperativa con posterioridad a la misma.

**Artículo 54. El capital social**

**Uno.** El capital social de la Cooperativa es variable y estará representado por un número ilimitado de participaciones sociales de los socios.

**Dos.** El capital social de la Cooperativa a la fecha de la aprobación de estos Estatutos asciende a 30.000 euros y el capital social mínimo se establece en 30.000 euros, distribuido en 3000 participaciones de 10 euros de valor nominal cada una.

**Tres.** Las aportaciones al capital social se acreditarán mediante participaciones nominativas en favor del socio que las suscriba.

**Cuatro.** Las aportaciones se realizarán en dinero, aunque también se podrán efectuar en bienes y derechos, en cuyo caso el Consejo Rector determinará su valor previo informe de un experto independiente designado al efecto.

**Cinco.** La cooperativa podrá emitir nuevas participaciones con el mismo valor nominal que el establecido en el apartado 2º del presente artículo a fin de formalizar su adquisición por nuevos socios.

**Sexto.** Ningún socio, podrá tener una aportación superior al tercio del capital social, si bien este límite no operará hasta cuando la cooperativa supere los diez socios tal y como se prevé en el artículo 57-4 de la Ley 4/1993.

## IV. KAPITULUA
## ERREGIMEN EKONOMIKOA

**53. artikulua. Erantzukizuna.**

**Bat.** Bazkideek ez dute banaka erantzungo elkarteak dituen zorrez, beraz, beren erantzukizuna, izenpetuak dituzten elkarteko partaidetzen kopurura mugatuta dago.

**Bi.** Despoltastu edo ordaindu beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja ematen duen bazkideak ez du inolako erantzukizunik izango Kooperatibak geroztik egiten dituen zorrekiko.

**54. artikulua. Elkartearen kapitala.**

**Bat.** Kooperatiba-elkartearen kapitala aldagarria da eta bazkideen elkarteko partaidetza-kopuru mugagabe batek ordezkatuta egongo da.

**Bi.** Kooperatiba-elkartearen kapitala, Estatutu hauek onetsi diren datan, 30.000 eurokoa da eta elkartearen gutxieneko kapitala 30.000 eurotan ezartzen da, bakoitzak 10 euroko balio izendatua duten 3.000 partaidetzatan banatuta.

**Hiru.** Elkarteko kapitalari egindako ekarpenak, harpidetzen dituen bazkidearen aldeko partaidetza izendatuen bidez egiaztatuko dira.

**Lau.** Ekarpenak dirutan egingo dira, baina ondasun eta eskubideetan ere egin ahal izango dira eta, kasu horretan, Artezkaritza Kontseiluak beren balioa zehaztuko du aldez aurretik horretarako izendatutako aditu independente batek txostena eginda.

**Bost.** Kooperatibak partaidetza berriak jaulki ahal izango ditu artikulu honetako 2. atalean ezarritako balio izendatu berberarekin bazkide berriek beren erosketak egin ahal izateko.

**Sei.** Ezein bazkidek ere, inoiz ez du elkartearen kapitalaren heren bat baino handiagoa den kapital-ekarpenik egiterik izango, baina muga horrek eraginik ez du izango kooperatibak hamar bazkide izan arte, 4/1993 Legeko 57-4. artikuluan aurreikusten den moduan.

**Artículo 55. Aportaciones obligatorias**

**Uno.** El número mínimo de participaciones que se deberán suscribir para adquirir la condición de socio usuario será de 30 participaciones o 300 Euros.

La suscripción de dichas participaciones deberá hacerse efectiva al menos en un veinticinco por ciento en el momento de la suscripción y el resto en el plazo máximo de 1 año.

**Dos.** La aportación obligatoria mínima para mantener la condición de socio usuario se establece en 30 participaciones o 300 Euros.

Si la aportación al capital social de un socio quedara por debajo de la aportación obligatoria mínima, deberá realizar la aportación necesaria hasta alcanzar dicho importe en el plazo de 1 año desde su requerimiento.

**Artículo 56. Variación del Capital Social.**

**Uno.** Por acuerdo de la Asamblea General que se pronuncie sobre las cuentas del ejercicio, se determinará el importe del capital social de la SCE al cierre del ejercicio y su variación con respecto al ejercicio anterior.

**Dos.** El capital podrá aumentarse por incorporación de todas o parte de las reservas distribuibles en virtud de acuerdo adoptado por la Asamblea General con arreglo a las condiciones de quórum y mayorías requeridas para la modificación de estatutos sociales.

Las nuevas participaciones emitidas con cargo al aumento de capital referido en el párrafo anterior corresponderán a los socios prorrateadas por las participaciones de que ya disponían en el capital.

**Tres.** Así mismo, se podrá aumentar el valor nominal de las participaciones por agrupación de participaciones ya emitidas. Cuando este aumento precise aportaciones complementarias de los socios según las disposiciones establecidas en los estatutos, el acuerdo de la Asamblea General deberá adoptarse con arreglo a las condiciones de quórum y mayoría requeridas para la modificación de los estatutos. Del mismo, modo el valor nominal de las participaciones `podrá reducirse por división de las participaciones emitidas.

**Cuatro.** Las participaciones podrán cederse o transmitirse a otros socios o a aquel que teniendo los requisitos para ello, se comprometa a adquirir la condición de tal en el plazo de 3 meses desde la transmisión.

**Quinto.** Queda expresamente prohibida la adquisición por parte de la SCE de sus propias participaciones.

**55. artikulua. Derrigorrezko ekarpenak.**

**Bat.** Bazkide erabiltzaile izaera hartzeko izenpetu beharko diren partaidetzen gutxieneko kopurua, 30 partaidetza edo 300 eurokoa izango da.

Partaidetza horien izenpetzea, gutxienez ere beren ehuneko hogeita bostean egin beharko da izenpetzeko unean eta gainerakoa urtebeteko gehieneko epean izenpetuko da.

**Bi.** Bazkide erabiltzaile izaera mantentzeko egin beharreko gutxieneko derrigorrezko ekarpena 30 partaidetza edo 300 eurokoa izango da.

Bazkide batek elkarteko kapitalari egindako ekarpena gutxieneko derrigorrezko ekarpena baino txikiagoa baldin bada, derrigorrezko ekarpenari dagokion kopurura iritsi arteko diferentziaren ekarpena eskatzen zaionetik urtebeteko epera bitartean egin beharko du.

**56. artikulua. Elkarteko Kapitalaren aldaketa.**

**Bat.** Ekitaldiko kontuez erabakiak hartuko dituen Batzar Nagusiaren erabakiz, EKEren elkarteko kapitalaren zenbatekoa eta aurreko ekitaldiarekiko izandako aldaketa zehaztuko dira ekitaldia ixtean.

**Bi.** Kapitala, Batzar Nagusiak quorum-arrazoiengatik eta elkartearen estatutuak aldatzeko eskatutako gehiengoen arrazoiengatik onartutako erabakien indarrez, banagarriak diren gordekin edo erreserba guztiak biltzeagatik handitu ahal izango da.

Aurreko atalean aipatutako kapitala handitzearen kargura jaulkitako partaidetza berriak bazkideei dagozkienak izango dira lehen kapitalean zituzten partaidetzen arabera hainbanatuta.

**Hiru.** Era berean, jada jaulkitako partaidetzak biltzeagatik partaidetzen balio izendatuak ere handitu ahal izango dira. Handitze horrek, estatutuetan ezarritako xedapenen arabera bazkideen ekarpen osagarriak behar dituenean, Batzar Nagusiaren erabakia estatutuak aldatzeko eskatzen diren quorum- eta gehiengo-baldintzetan hartu beharko da. Era berean, partaidetzen balio izendatua txikitu ere egin daiteke jaulkitako partaidetzen zatiketarengatik.

**Lau.** Partaidetzak beste bazkide batzuei laga edo eskualda ahal izango zaizkie eta baita hartarako betebeharrak betetzen dituztenei ere, baldin eta eskualdaketa egiten den egunetik zenbatutako 3 hilabeteko epean bazkide-izaera hartzeko konpromisoa hartzen baldin badute.

**Bost.** Erabat debekatuta dago EKEk berak bere kapital-partaidetzak erostea.

**Artículo 57. Interés de las aportaciones.**
Las aportaciones a capital social no devengarán interés alguno.

**Artículo 58. Actualización de las aportaciones.**
**Uno.** El balance de la Cooperativa será actualizado en los mismos términos y condiciones que se establezcan para las sociedades de Derecho común.

**Dos.** La plusvalía resultante de la regularización del balance se destinará, en uno o más ejercicios, en primer lugar a compensar pérdidas existentes y el resto, si lo hubiere, por decisión y en las cuantías que acuerde la Asamblea General, bien a la ampliación del capital, o bien al incremento de las reservas, tanto sean obligatorias como voluntarias.

**Artículo 59. Reembolso de las aportaciones.**
**Uno.** En todos los casos de pérdida de la condición de socio, éste o sus causahabientes acreditados están facultados para exigir el reembolso de la parte del capital suscrito una vez deducida, en su caso, la parte proporcional de las pérdidas imputables al capital social. Su evaluación se hará en base al balance de cierre del ejercicio en que se produzca la baja.

**Dos.** Cuando la baja sea justificada, según lo establecido en los artículos 12 y 13, o por fallecimiento, no se practicará deducción alguna sobre las aportaciones.

En los demás casos, el Consejo Rector podrá acordar una deducción:
. de hasta un 30% en los casos de baja por expulsión o baja voluntaria no justificada por incumplimiento del período mínimo de permanencia,
. de hasta un 20% en los casos de baja, voluntaria u obligatoria, no justificada,
sobre el importe liquidatorio de las aportaciones obligatorias del socio, no siendo objeto de deducción alguna las aportaciones voluntarias, ni las que se hubiesen capitalizado vía retornos cooperativos.

**Tres.** El plazo de reembolso no excederá de tres años a partir de la fecha de la baja o de un año desde el hecho causante en caso de fallecimiento del socio. Su fijación, atendiendo a la situación financiera de la Cooperativa y a las circunstancias de la baja, es competencia del Consejo Rector.

**Cuatro.** Los importes pendientes de reembolso percibirán un interés igual al legal del dinero, pero no tendrán derecho a actualización.

**57. artikulua. Ekarpenen interesak.**
Elkarteko kapitalari egindako ekarpenek ez dute inolako interesik sortuko.

**58. artikulua. Ekarpenak eguneratzea.**
**Bat.** Kooperatibaren balantzea Zuzenbide Komunean elkarteentzat ezarritako neurri eta baldintza berberetan eguneratuko da.

**Bi.** Ekitaldi batean edo gehiagotan balantzearen erregularizaziotik ateratzen den gainbalioa, lehen-lehenik izandako galerak konpentsatzeko erabiliko da eta, gainerakoa, baldin balego, Batzar Nagusiak erabakitako kopuruen arabera, kapitala handitzeko eta derrigorrezko edo borondatezko gordekin edo erreserbak handitzeko erabiliko da.

**59. artikulua. Ekarpenak itzultzea.**
**Bat.** Bazkide-izaera galdutako kasu guztietan, bazkide izandakoak edo bere kausadun egiaztagarriak ahalmena izango du izenpetutako kapitalaren zatia itzultzea eskatzeko, beti ere, kasua bada, elkarteko kapitalari egozgarriak zaizkion galeren zati proportzionala kitatuta. Horren balorazioa, baja gauzatzen den ekitaldiaren itxierako balantzean oinarrituta egingo da.

**Bi.** Estatutuetako 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera baja justifikatua denean edo heriotza dela eta gertatzen denean, ekarpenei ez zaie inolako kitapenik egingo.

Gainerako kasuetan, Artezkaritza Kontseiluak ondorengo kitapenak onar ditzake:
. %30 artekoa kooperatibatik kanporatze edo bidaltze kasuan eta baita bazkide izateko gutxieneko denboraldia ez betetzeagatik justifikatu gabeko borondatezko bajen kasuan ere, eta
. %20 artekoa justifikatu gabeko borondatezko edo derrigorrezko bajen kasuetan,
beti ere bazkidearen derrigorrezko ekarpenen likidazio-zenbatekoarekiko kalkulatuta, baina borondatezko ekarpenak eta kooperatibako etekinen itzulkin bidez kapitalizatuak ez dira itzulgarriak izango.

**Hiru.** Itzultzeko epea, baja-datatik zenbatuta ez da hiru urte baino handiagoa izango, edota bazkidearen heriotzaren kasuan, ez da urtebete baino handiagoa izango. Kooperatibaren finantza-egoeraren eta bajaren inguruabarren arabera, Artezkaritza Kontseiluak du itzultze horiek erabakitzeko eskumena.

**Lau.** Itzuli-zain egondako zenbatekoek diruaren legezko interesa jasoko dute baina ez dute eguneratze-eskubiderik izango.

**Artículo 60. Cuotas de ingreso**
**Uno.** La Asamblea General establecerá anualmente el importe de la cuota de ingreso que los nuevos socios deberán desembolsar juntamente con el importe de las participaciones suscritas.

**Dos.** Las cuotas de ingreso no son reintegrables, ni se integrarán en el capital social sino que se destinarán al Fondo de Reserva Obligatorio.

**Artículo 61. Otras financiaciones**
**Uno.-** Las entregas de cualquier tipo de bienes o prestación de servicios para la gestión cooperativa, y los pagos para la obtención de los servicios cooperativos, realizados por los socios, no integran el capital social de la Cooperativa y están sujetos a las condiciones fijadas y contratadas con la Cooperativa.

**Dos.-** Anualmente la Asamblea General de la Cooperativa determinará la cuota de sostenimiento que cada entidad socio deberá abonar a la Cooperativa para sufragar los gastos comunes obligatorios. Esta cuota será proporcional al número de alumnos representados por cada entidad asociada.

**Tres.-** La Cooperativa podrá recurrir, previos los acuerdos pertinentes, a cualquiera de las modalidades de financiación previstas en los artículos 57-5 y 65, apartados 3, 4, 5 y 6 de la Ley 4/1993.

**Artículo 62.- Fondo de Solidaridad.**
**Uno.** La Cooperativa desde su constitución, creará el denominado Fondo de Solidaridad, destinado a la promoción y financiación de proyectos específicos impulsados por cualquier socio, acordes en todo caso con los fines y objetivos de la Cooperativa.

**Dos.-** Este Fondo de Solidaridad se nutrirá de las aportaciones periódicas y obligatorias que deberán realizar todos los socios de la cooperativa, así como del 70 % del excedente disponible conforme a lo establecido en el artículo 66. El importe de dicho Fondo se constituirá como un patrimonio sin personalidad jurídica propia, siendo en todo caso irrepartible entre los socios.

**Tres.-** Anualmente, la Asamblea General de la Cooperativa fijará el valor de la cuota obligatoria de solidaridad que deberá abonar cada tipo de socio fijando el criterio de cálculo del mismo.

**Cuatro.** El importe del Fondo, su administración y distribución será competencia exclusiva del Consejo Rector mediante la elaboración de un plan que deberá ser aprobado anualmente y con carácter previo por la Asamblea General.

**60. artikulua. Sarrera-kuotak.**
**Bat.** Batzar Nagusiak urtero ezarriko du bazkide berriek izenpetutako partaidetzen zenbatekoarekin batera ordaindu beharko duten sarrera-kuotaren zenbatekoa.

**Bi.** Sarrera-kuotak ez dira itzulgarriak izango eta ez dira elkarteko kapitalean txertatuko, Derrigorrezko Erreserba Fondoetarako izango dira.

**61. artikulua. Beste finantziazio batzuk.**
**Bat.-** Bazkideek Kooperatibaren kudeaketarako emandako edozein ondasun motak edo egindako edozein zerbitzu-prestakuntzak eta kooperatiba-zerbitzuak lortzeko egindako ordainketek, ez dute Kooperatibaren Elkarte-kapitalik osatzen eta Kooperatibak finkatu eta kontratatutako baldintzen pean aurkitzen dira.

**Bi.-** Kooperatibaren Batzar Nagusiak urtero zehaztuko du bazkide den erakunde bakoitzak derrigorrezko gastu komunak ordaintzeko Kooperatibari ordaindu beharko dion kopurua. Kuota hori bazkidetutako erakunde bakoitzak dituen ikasleen kopuruaren proportzionala izango da.

**Hiru.-** Aldez aurretik behar diren erabakiak hartuta, Kooperatibak 4/1993 Legeko 57-5. eta 65. artikuluetan, 3., 4., 5. eta 6. ataletan aurreikusitako finantziazio-moduetako edozein erabili ahal izango du.

**62. artikulua. Elkartasun Kutxa.**
**Bat.** Kooperatibak, eratzen denetik aurrera, Elkartasun Kutxa deituko dena sortu ahal izango du, edozein kasutan ere Kooperatibaren helburu eta xedeekin bat datozen eta edozein bazkidek bultzatuak izan daitezkeen proiektu bereziak sortzeko eta finantzatzeko.

**Bi.-** Elkartasun Kutxa hori kooperatibako bazkide guztiek derrigorrez egin beharko dituzten aldizkako ekarpenen bidez hornitua izango da eta baita eskura den soberakinaren %70ak ematen duenetik ere, 66. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kutxa horretako zenbatekoa bere berariazko nortasun juridikorik gabeko ondare gisa eratua izango da eta edozein kasutan ere ez da bazkideen artean banatu ahal izango.

**Hiru.-** Kooperatibaren Batzar Nagusiak, urtero finkatuko du bazkide mota bakoitzak ordaindu beharko duen derrigorrezko elkartasun-kuotaren balioa eta baita kuota hori finkatzeko erabiliko den kalkulu-irizpidea ere.

**Lau.** Kutxa horren Fondoaren zenbatekoa ezartzeko, bere administrazioa gauzatzeko eta banaketa zehazteko eskumena Artezkaritza Kontseiluak izango du eta urtero plan bat prestatu beharko du, gero Batzar Nagusiak onets dezan.

**Artículo 63. Excedentes netos**

**Uno.** Para la determinación de los excedentes netos se aplicarán las normas y criterios establecidos para las sociedades mercantiles.

**Dos.** Se considerarán partidas deducibles:

- el importe de los bienes entregados para la gestión Cooperativa en valoración no superior a los precios de mercado,
- los intereses devengados por las aportaciones al capital social, reguladas en el artículo 57 de la Ley 4/1993, y por las prestaciones y financiaciones no integradas en el capital social,
- las amortizaciones legalmente autorizadas,
- los gastos necesarios para el funcionamiento de la Cooperativa, y
- cualesquiera otras deducciones reconocidas, a los mismos efectos, por las normas contables en vigor.

**Artículo 64. Distribución de excedentes disponibles**

**Uno.** Los excedentes netos, una vez deducidas las cantidades destinadas a compensar pérdidas de ejercicios anteriores y los impuestos correspondientes, constituirán los excedentes disponibles.

**Dos.** La Asamblea General distribuirá los excedentes disponibles con sujeción a las reglas siguientes:

a) Un 30% como mínimo al conjunto del Fondo de Reserva Obligatorio y Fondo de Educación y Promoción Cooperativa, debiéndose destinar un mínimo del 20% al Fondo de Reserva Obligatorio y un 10% como mínimo al Fondo de Educación y Promoción Cooperativa. El porcentaje mínimo a destinar al Fondo de Educación y Promoción Cooperativa podrá reducirse a su mitad hasta que el Fondo de Reserva Obligatorio alcance un importe igual al 50% del Capital Social.

b) El resto se destinará al denominado Fondo de Solidaridad.

**Tres.** El retorno cooperativo de cada socio será proporcional a su actividad cooperativizada. En ningún caso podrá ser adjudicado en base a su participación en el capital social.
El importe de los retornos cooperativos se incorporará al capital social incrementando la cuantía de la aportación obligatoria respectiva de cada socio, sin que estos importes queden afectos a las deducciones en caso de baja.

**Artículo 65. Fondos obligatorios**

**Uno.** El Fondo de Reserva Obligatorio, destinado a la consolidación, desarrollo y garantía de la Cooperativa, es irrepartible entre los socios.
Se destinarán necesariamente a este Fondo, además de las dotaciones previstas en el artículo anterior, las deducciones sobre aportaciones en caso de baja y las cuotas de ingreso.

**Dos.** El Fondo de Educación y Promoción Cooperativa, que se contabilizará en el pasivo del

**63. artikulua. Soberakin garbiak.**

**Bat.** Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza-elkarte edo sozietateentzat ezarritako arauak eta irizpideak aplikatuko dira.

**Bi.** Kontu-sail kitagarritzat hartuko dira:

- Kooperatibaren kudeaketarako entregatutako zenbatekoak, merkatuko prezioena baino balorazio handiagorik gabe,
- elkarteko kapitalari egindako ekarpenek sortutako interesak, 4/1993ko Legeko 57. artikuluan erregulatuak eta elkarteko kapitalean sartu gabeko prestazioak eta finantziazioak,
- legez baimendutako amortizazioak,
- Kooperatibaren funtzionamendurako egin beharreko gastuak, eta
- ondorio beretarako indarrean dauden kontabilitate-arauek aitortutako beste edozein kitapen mota.

**64. artikulua. Eskura diren soberakinen banaketa.**

**Bat.** Soberakin garbiak, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera destinatutako kopuruak eta dagozkien zergak kitatu ondoren, eskura diren soberakinek eratuko dituzte.

**Bi.** Batzar Nagusiak ondorengo arau hauen arabera banatuko ditu eskura diren soberakinak:

a) Gutxienez ere %30 Derrigorrezko Erreserba Fondoak eta Kooperatibaren Hezkuntza eta Sustapen Fondoak osatzen duten multzorako izango da, hortik gutxienez ere %20 Derrigorrezko Erreserba Fondorako izanik eta gutxienez ere %10 Kooperatibaren Hezkuntza eta Sustapen Fondorako. Kooperatibaren Hezkuntza eta Sustapen Fondorako jarriko den gutxieneko ehunekoa erdira jaitsi ahal izango da Derrigorrezko Erreserba Fondoak Elkarteko Kapitalaren %50eko zenbatekoa iristen duen arte.

b) Gainerakoa, Elkartasun Kutxa izeneko fondorako izango da.

**Hiru.** Bazkide bakoitzaren Kooperatibako itzulkina bere kooperatiba-jardueraren proportziokoa izango da. Ezein kasutan ere ez da esleituko elkarteko kapitalean duen partaidetzan oinarrituta.
Kooperatibako itzulkinen zenbatekoa elkarteko kapitalari gehituko zaio bazkide bakoitzaren hurrenez hurreneko derrigorrezko ekarpenaren zenbatekoa handituz eta zenbateko horiek ez dira kitapenei atxikita geldituko baja-kasuetarako.

**65. artikulua. Derrigorrezko Fondoak.**

**Bat.** Kooperatiba sendotzeko, garatzeko eta bermatzeko den Derrigorrezko Erreserba Fondoa ez da bazkideen artean banatu ahal izango.
Aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gainera, Fondo horretarako izango dira baja-kasuetan ekarpenei egiten zaizkien kitapenak eta sarrera-kuotak.

**Bi.** Kooperatibaren Hezkuntza eta Sustapen Fondoa, balantzearen pasiboan beste kontu-sail

balance separadamente de otras partidas, se destinará, en aplicación de las líneas básicas que establezca la Asamblea General, a las actividades que cumplan alguna de las finalidades previstas en el artículo 68-3 de la Ley 4/1993.
Se destinarán necesariamente a este Fondo, además de las dotaciones previstas en el artículo anterior, el importe de las sanciones económicas disciplinarias impuestas a los socios.

**Artículo 66. Imputación de pérdidas**

**Uno.** La Asamblea General realizará la imputación de pérdidas de acuerdo con las reglas siguientes:

a) Contra el fondo de regularización del balance en su caso, según lo señalado en el artículo 49 - Dos, por la cuantía posible.
b) A los Fondos de Reserva Voluntarios, si existieran, la totalidad de las mismas.
c) Al Fondo de Reserva Obligatorio podrá imputarse, como máximo, el porcentaje medio de lo destinado a los fondos obligatorios en los últimos cinco años de excedentes positivos.
d) La cuantía no compensada según a), b) y c) se imputará a los socios con el mismo criterio establecido para los retornos en el artículo 56 - Tres.

Las pérdidas imputadas a cada socio se satisfarán

- bien directamente o mediante reducción de sus aportaciones a capital, dentro del ejercicio de su aprobación,
- bien con cargo a los retornos que pudieran corresponderle en los cinco años siguientes, y, si quedara algún resto, en el plazo de un mes más mediante pago directo.

**Dos.** No obstante lo señalado en el apartado anterior, la Asamblea General podrá acordar que todas o parte de las pérdidas de un ejercicio sean imputadas a una cuenta especial sin asignación individualizada para su amortización con cargo a futuros resultados positivos y regularizaciones de balance en su caso, dentro del plazo máximo de cinco años.
Si, transcurridos los cinco años, quedara saldo sin compensar, la diferencia se distribuirá, entre todos los socios de ese momento, en proporción a la respectiva actividad cooperativizada del último año, según el criterio establecido en la letra d) del apartado anterior.
A los socios que causen baja durante ese período de tiempo se les imputará la parte correspondiente del fondo de pérdidas pendiente de compensación.

batzuetatik bereizita kontabilizatuko dena, Batzar Nagusiak ezarritako oinarrizko ildoen arabera, 4/1993 Legeko 68-3. artikuluan aurreikusitako helburuetakoren bat betetzen duten jardueretarako erabiliko da.
Aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gainera, Fondo horretarako erabiliko dira derrigorrez, bazkideei ezarritako diziplina-zigor ekonomikoen zenbatekoak.

**66. artikulua. Galerak egoztea.**

**Bat.** Batzar Nagusiak ondorengo arauen arabera egotziko ditu izandako galerak:

a) Kasua bada, balantzearen erregularizazio-fondoaren aurka, 49-2. artikuluan adierazitakoaren arabera, ahal den kopurua egotziz.
b) Borondatezko Erreserba Fondoei, izango balira, beren osotasunean.
c) Derrigorrezko Erreserba Fondoei, gehienez ere, azken bost urteetan izandako soberakin positiboetatik derrigorrezko fondoetara destinatutako batez besteko ehunekoa.
d) a), b) eta c) atalen arabera konpentsatu gabeko zenbatekoa bazkideei egotziko zaie 56-3. artikuluan itzulkinentzako ezarritako irizpide berberekin.

Bazkide bakoitzari egotzitako galerak honela ordainduko dira:

- zuzenean edota onetsi diren ekitaldiaren barruan kapitalari egindako ekarpenen murrizketa bidez,
- ondorengo bost urteetan legozkiokeen itzulkinen kargura eta, hondarrik geldituko balitz, hilabeteko epean zuzenean ordainduta.

**Bi.** Aurreko atalean adierazitakoa gorabehera, Batzar Nagusiak, ekitaldi bateko galera guztiak edo beren zati bat, bost urteko gehieneko epean etorkizuneko emaitza positiboen eta balantze--erregularizazioen kargura amortizatzeko bazkideen banakako izendapenik gabeko kontu-sail berezi bati egoztea erabaki dezake.
Bost urteak igarota, konpentsatu gabeko saldoa geldituko balitz, diferentzia, une horretan dauden bazkide guztien artean banatua izango da azken urtean izandako hurrenez hurreneko kooperatiba-jardueraren proportzioan, aurreko ataleko d) letran ezarritako irizpidearen arabera.
Denboraldi horretan baja izaten diren bazkideei, konpentsatu gabe geldituko galeren fondotik dagokien zatia egotziko zaie.

## CAPITULO V.
## DE LA DOCUMENTACIÓN SOCIAL Y CONTABILIDAD

**Artículo 67. Documentación social**

**Uno.** La Cooperativa llevará en orden y al día los siguientes libros:

a) Registro de socios
b) Registro de aportaciones al capital social
c) De actas de la Asamblea General y del Consejo Rector
d) De Inventarios y Balances
e) Diario
h) Los que vengan exigidos por otras disposiciones legales

y deberán ser habilitados o legalizados por el Registro de Cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Dos.** Los asientos y anotaciones se realizarán por procedimientos informáticos o por otros que sean adecuados. Posteriormente serán encuadernados correlativamente y legalizados en el plazo de seis meses, desde la fecha de cierre del ejercicio, en el Registro de Cooperativas.
Sin perjuicio de ello, las actas de los órganos citados en el apartado anterior, que se confeccionen por procedimientos informáticos o similares, serán remitidas al Registro de Cooperativas, mediante certificación, en el plazo de dos meses desde las fechas de su aprobación para su legalización.

**Artículo 68. Contabilidad**

**Uno.** La Cooperativa llevará la contabilidad adecuada a su actividad, con arreglo a lo dispuesto en el Código de Comercio y demás disposiciones legales aplicables, respetando las peculiaridades del régimen económico cooperativo.

**Dos.** Las cuentas anuales de la Cooperativa a formular al cierre del ejercicio comprenderán las obligatorias según la Normativa contable aplicable a la SCE en la Comunidad Autónoma Vasca..

**Artículo 69. Depósito de las cuentas anuales**

El Consejo Rector presentará, para su depósito en el Registro de Cooperativas, en el plazo de un mes desde su aprobación por la Asamblea General, las cuentas anuales y, en su caso, el informe de gestión y el de los auditores de cuentas, firmados por todos los miembros de aquél. Si algún Consejero no pudiese hacerlo se señalará expresamente la causa de tal omisión.

**Artículo 70. Auditoría Externa.**

Las cuentas anuales deberán ser verificadas por personas físicas o jurídicas ajenas a la Cooperativa, que deberán ser nombradas por la Asamblea General, levantando el consiguiente informe de auditoría. En el caso de no nombrarse o por defecto de las personas nombradas, será de aplicación lo previsto en el artículo 72.2 de la Ley 4/1993 de Cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## V. KAPITULUA
## ELKARTEAREN DOKUMENTUAK ETA KONTABILITATEKOAK

**67. artikulua. Elkartearen dokumentuak**

**Bat.** Kooperatibak ordenan eta eguneratuta edukiko ditu ondorengo liburuak:

a) Bazkideen Erregistro Liburua.
b) Elkarteko Kapitalari egindako ekarpenen Erregistro Liburua.
c) Batzar Nagusiaren eta Artezkaritza Kontseiluaren Akta Liburuak.
d) Inbentarioen eta Balantzeen Liburuak.
e) Eguneroko Liburua.
i) Legezko xedapenek eskatzen dituzten Liburuak.

Eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan gaituak edo legeztatuak izan beharko dute.

**Bi.** Idazpenak eta oharrak informatika-baliabideen bitartez edota egokiak diren beste modu batzuez egingo dira. Ondoren, orrialdeak hurrenez hurren koadernatu eta legeztatu egingo dira Kooperatiben Erregistroan, ekitaldia amaitu ondorengo egunetik zenbatutako sei hilabeteko epean.
Horren kalterik gabe, informatika-baliabideen edo antzekoen bitartez egiten diren aurreko atalean aipatutako organoen aktak Kooperatiben Erregistrora ziurtatuta igorriko dira legeztatzeko, beren onespen-datatik zenbatutako bi hilabeteko epean.

**68. artikulua. Kontabilitatea.**

**Bat.** Kooperatibak bere jarduerari dagokion kontabilitate egokia eramango du, Merkataritzako Kodean xedatuta dagoenaren eta gainerako legezko xedapen aplikagarrien arabera, beti ere kooperatiben erregimen ekonomikoaren berezitasunak errespetatuz.

**Bi.** Ekitaldia ixteko egin beharreko Kooperatibaren urteko kontuek beren barne izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegokoan EKEri aplikagarri zaizkion Kontabilitate Arauetan derrigorrezkoak direnak.

**69. artikulua. Urteko kontuak gordetzea.**

Artezkaritza Kontseiluak, Batzar Nagusiak onetsitako datatik zenbatutako hilabeteko epean, urteko kontuak aurkeztuko ditu Kooperatiben Erregistroan gordetzeko eta, kasua bada, kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreen txostena, Artezkaritza Kontseiluko kide guztiek sinatuta. Administratzaileren batek sinatzerik izango ez balu, ez sinatu izanaren arrazoia zehazki azalduko da.

**70. artikulua. Kanpoko auditoria.**

Urteko kontuak Kooperatibaz kanpoko pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatuak izan behar dute. Pertsona horiek Batzar Nagusiak izendatuak izango dira eta auditoria-txostena egingo dute. Pertsona horiek izendatzen ez badira edota izendatuek txostenik egiten ez badute, aplikagarri izango da Euskal Autonomia Erkidegoko 4/1993 Legeko 72.2 artikuluak aurreikusitakoa.

**Artículo 71. Letrado Asesor.**

**Uno.** El Consejo Rector nombrará un letrado asesor en cumplimiento de lo establecido en el artículo 73 de la Ley Vasca de Cooperativas, el cual firmará, dictando si son ajustados a Derecho los acuerdos adoptados por la Asamblea General o el Consejo Rector que sean inscribibles en el Registro de Cooperativas.

**Dos.** El letrado asesor responderá civilmente en caso de negligencia profesional frente a la Cooperativa, sus socios y terceros.
El ejercicio de esta función será incompatible con cargo alguno de la Cooperativa.

**Tres.-** La relación entre la Cooperativa y el letrado asesor podrá ser de arrendamiento de servicios como profesional liberal o de contrato laboral con la Cooperativa.

**71. artikulua. Letratu Aholkularia.**

**Bat**. Artezkaritza Kontseiluak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Legeko 73. artikuluan xedatua betez, letratu aholkulari bat izendatu behar du eta letratu horrek Kooperatiben Erregistroan inskribagarriak diren Batzar Nagusiaren edo Artezkaritza Kontseiluaren erabakiak Zuzenbideari doitzen zaizkiola dion txosten bat egin eta sinatu behar du.

**Bi.-** Letratu aholkulariak arlo zibilean erantzun beharko du Kooperatibarekiko, bere bazkideekiko eta hirugarrenekiko zabarkeria profesionala izandako kasuetan.
Eginkizun hori bateraezina izango da Kooperatibako edozein kargurekin.

**Hiru.-** Kooperatibaren eta Letratu Aholkulariaren arteko harremana, zerbitzu-errentamendu erako profesional liberalaren edo Kooperatibarekin lan-kontratua duen profesionalaren modukoa izan daiteke.

## CAPITULO VI.
## DE LA DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN

**Artículo 72. Disolución, insolvencia y procedimientos análogos.**
En lo referente a la disolución, liquidación, insolvencia, suspensión de pagos, procedimientos concursales o análogos, la SCE estará sometida a las disposiciones legales aplicables a las cooperativas constituidas con arreglo a la legislación del estado miembro en el que tenga su domicilio social, incluidas las disposiciones relativas a la adopción de decisiones por la asamblea general.

## ***DISPOSICIONES ADICIONALES***

**PRIMERA. Relaciones Cooperativa**
Además de lo regulado en los artículos 39, 40, 41 y 42 de estos Estatutos, la regulación básica de las relaciones jurídicas de la Cooperativa con las Asambleas Territoriales y de éstas con las entidades jurídicas que se doten los socios usuarios (ikastolas) de cada territorio, su desarrollo y las normas de aplicación se regularan en el Reglamento Interno de la Cooperativa.
**SEGUNDA. Reglas de implicación de los trabajadores**
La participación de los trabajadores en los Órganos Sociales de la Cooperativa se realizara en los términos que se recojan en el Acuerdo sobre las reglas de implicación de los trabajadores de la SCE.
**TERCERA. Contratación trabajadores**
El procedimiento para la contratación de los trabajadores de la SCE, de sus filiales y establecimientos, que no tengan la condición de directivos de la Cooperativa o ejecutivos necesarios para el cumplimiento del objeto social. se regulara en el Reglamento Interno de la Cooperativa, sin perjuicio de lo dispuesto para la contratación en la normativa laboral del estado en el que vaya a desarrollar su trabajo el trabajador de la SCE.

## DISPOSICIÓN FINAL

**PRIMERA. Arbitraje cooperativo**
Las cuestiones litigiosas que se susciten entre la Cooperativa y sus socios o entre los socios de la cooperativa en el marco de las relaciones cooperativizadas, incluso en el periodo de liquidación, una vez agotadas las vías de conciliación, se someterán al arbitraje del Consejo Superior de Cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre que este órgano fuera competente para resolver dichas cuestiones, comprometiéndose expresamente las partes a acatar el laudo que resultase de dicho arbitraje.
**SEGUNDA. Normas de reenvío.**
Para todo lo no previsto en estos estatutos, valdrán las disposiciones de Ley previstas por el reglamento CE nº 1435/2003, del Consejo de 22 de julio de 2003, y modificaciones posteriores, por la Directiva 2003/72/CE del Consejo de 22 de julio de 2003 y modificaciones posteriores, así como por la Ley 4/1993 de 24 de junio de Cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## VI. KAPITULUA
## KOOPERATIBA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

**72. artikulua. Desegitea, kaudimengabezia eta antzeko prozedurak.**
Desegite, likidazio, kaudimengabezia, ordainketa-etete, lehiaketa-prozedura edo antzekoei dagokienetan, EKE, Kooperatiba-elkarteak egoitza duen estatu partaidearen legeriaren arabera eratutako kooperatibei aplikagarri zaizkien legezko xedapenen mende egongo da, Batzar Nagusiak erabakiak onartzeari dagozkion xedapenak barne.

## ***XEDAPEN GEHIGARRIAK***

**LEHENA. Kooperatibaren harremanak.**
Estatutu hauetako 39., 40., 41. eta 42. artikuluetan erregulatutakoaz gainera, Kooperatibak Lurralde Batzarrekin dituen harreman juridikoen oinarrizko erregulazioa eta Kooperatibak eta Lurralde Batzar horiek lurralde bakoitzeko bazkide erabiltzaileek (Ikastolek) beren buruak zuzkitzeko eratzen dituzten erakunde juridikoekin izango dituztenak eta beren garapenak nahiz aplikazio-arauak, Kooperatibaren Barne Araudiaren bitartez erregulatuko dira.
**BIGARRENA. Langileen Partaidetza Arauak**
Langileek EKE Kooperatibaren Elkarteko Organoetan izango duten partaidetza, berariaz onartuko den Langileentzako Partaidetza Arauak izeneko Akordioan jasoko da.
**HIRUGARRENA. Langileen kontratazioa.**
Kooperatibako zuzendaritzakoak edo elkartearen helburuak betetzeko beharrezkoak diren exekutiboak ez diren EKEko eta bere eskumendeko enpresa eta establezimenduetako langileak kontratatzeko prozedura, Kooperatibaren Barne Araudian erregulatuko da, EKEko langileek beren lana garatu behar duten estatuaren lan-arauetan kontrataziorako xedatutakoaren kalterik gabe.

## AZKEN XEDAPENA

**LEHENA. Kooperatibaren Arbitrajea.**
Kooperatibaren eta bere bazkideen artean edota kooperatibako bazkideen artean kooperatiba-harremanen markoan sortzen diren gatazka-gaiak, baita likidazio-aldian ere, adiskidetze-bideak agortu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren arbitrajearen mende jarriko dira, baldin eta organo horrek gai horiek ebazteko eskumenak baditu eta gatazkan diren bi aldeek arbitraje horretatik ateratzen den laudoa onartzeko konpromisoa espresuki hartuko dute.
**BIGARRENA. Eragorpen edo Birbidaltze Arauak.**
Estatutu hauetan aurreikusi gabeko gai guztiak ebazteko, 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 1435/2003 zk.dun EKren araudian aurreikusitako Lege-xedapenek eta ondorengo aldaketek, 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 2003/72 Zuzentarauak eta ondorengo aldaketek eta Euskal Autonomia Erkidegoko 1993ko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak xedatuek balioko dute.

| ANEXO II | II. ERANSKINA |
| --- | --- |
| **SERVICIOS EDUCATIVOS<br>DE LA NUEVA ORGANIZACIÓN DE IKASTOLAS** | **IKASTOLEN ELKARTE BERRIAREN<br>HEZKUNTZA-ZERBITZUAK** |
| ***LISTADO DE<br>SERVICIOS EDUCATIVOS*** | ***HEZKUNTZA-ZERBITZUEN<br>ZERRENDA*** |
| 14-05-2009 | 2009-05-14 |

| | |
|---|---|
| **1. I+D+I infraestructuras (servicios).**<br>1.1. Ayudar a las Ikastolas en su proyecto educativo. Ayudar a las Ikastolas en el desarrollo de su proyecto educativo.<br>(1) Dinamizar y garantizar la integración en el Proyecto Educativo de los elementos característicos propios de cada Ikastola (misión, visión, valores)<br>(2) Garantizar que la comunidad educativa acepta y actualiza el Proyecto Educativo de cada Ikastola que está formado por su identidad, proyecto curriculum y el proyecto lingüístico .<br>(3) Garantizar que el profesorado de las Ikastolas y los padres integren en su quehacer las competencias educativas generales así como garantizar la cooperación entre ellos a través de la formación adecuada.<br>(4) Potenciar, en general, en cada ikastola la adecuación del modelo IKASTOLA, a través del trabajo cooperativo y del asesoramiento, sobre todo en el proyecto curriculum, proyecto lingüístico, proiekto IKT, en la elección del material curricular y en los procesos de formación y evaluación, mediante la cooparticipación a la hora de adoptar decisiones en las ikastolas, y facilitando la mejora en la adopción de pactos y demás relaciones con las entidades relacionadas con las Ikastolas.<br><br>1.2. Desarrollar el proyecto educativo común. Ejecutar el proyecto educativo común, definir su concreción, aceptarlo, evaluarlo y actualizarlo.<br>(1) Adoptar medidas para el cumplimiento del carácter común de las Ikastolas y realizar su seguimiento y evaluación.<br>(2) Dinamizar y garantizar que cada ikastola integra en el carácter de su proyecto educativo y de su curriculum los principios del curriculum común básico correspondiente al colectivo de Ikastolas.<br>(3) Tratamiento de la diversidad: programas que aborden las necesidades educativas especiales y el tratamiento de la inmigración.<br>(4) Adoptar medidas para que se cumplan los rasgos de los principios organizativos propios del colectivo de las Ikastolas y realizar el seguimiento y evaluación del diseño del modelo de enpresa.<br>(5) Ofrecer ayuda para el cumplimiento en las ikastolas de las características que se definen en el Proyecto lingüístico y evaluar los resultados.<br>(6) Continuar investigando el modelo Ikastola 2020 (biblioteca Ikastola, historia de las Ikastolas, la marca Ikastola, análisis de situación necesidades sociales, leyes y agentes exógenos, finalidades, recursos, tipo de gestión, procesos), realizar un continuo contraste sobre el modelo IKASTOLA, establecer relaciones con aquellas entidades que se hallan fuera de nuestro territorio geográfico propio y llevar a cabo en connivencia estudios y actuaciones de mejora. | **1. I+G+B baliabideak (zerbitzuak).**<br>1.1. Ikastolari hezkuntza-proiektuan laguntzea. Ikastola bakoitzak bere hezkuntza proiektua aurrera eramateko orduan laguntza eskaintzea.<br>(1) Ikastola bakoitzaren berariazko izaera (misio-ikuskera, balore) osatzen duten atalak, ikastola bakoitzak bere Hezkuntza Proiektuan txerta ditzan dinamizatu eta ziurtatu.<br>(2) Ikastola bakoitzaren Hezkuntza Proiektua osatzen duten izaera, curriculum-proiektua eta horren barneko hizkuntza-proiektua, hezkuntza komunitateak onesten eta eguneratzen duela ziurtatu.<br>(3) Ikastoletako irakasleek eta gurasoek hezkuntza-konpetentzia orokorrak bere jardunean txerta ditzaten eta elkarlanean aritu daitezen, horretarako behar den prestakuntza ziurtatu.<br>(4) Oro har, ikastola bakoitzean bultzatzea IKASTOLA ereduaren egokitzapena, aholkularitzaren eta elkarlanaren bidez, batez ere curriculum proiektuan, hizkuntza proiektuan, IKT proiektuan, material kurrikularra aukeratzeko orduan eta prestakuntza- eta ebaluaketa-prozesuetan, kopartizipazioa indartzea ikastoletan erabakiak hartzeko orduan, eta itunen eta harremanen markoa hobetzen laguntzea ikastolen inguruko entitateekin.<br><br>1.2. Hezkuntza-proiektu komuna garatzea. Hezkuntza-proiektua komuna gauzatzea, zehaztapena definitzea, onartzea, ebaluatzea eta eguneratzea.<br>(1) Ikastola kolektiboaren izaera komunaren ezaugarriak bete daitezen neurriak hartu eta nola aplikatzen diren jarraitu eta ebaluatu.<br>(2) Ikastola kolektiboaren oinarrizko curriculum komunaren printzipioak ikastola bakoitzak bere Hezkuntza Proiektuko izaera eta curriculum ataletan txerta ditzaten dinamizatu eta ziurtatu.<br>(3) Aniztasunaren trataera: Hezkuntza Premia Berezien eta etorkinen trataera bideratzeko egitasmoak.<br>(4) Ikastola kolektiboaren antolakuntza-egituraren printzipioen ezaugarriak bete daitezen neurriak hartu eta enpresa egituraren diseinuan eta aplikazioan nola gauzatzen diren jarraitu eta ebaluatu.<br>(5) Hizkuntza proiektuan definitzen diren ezaugarriak ikastolek bete ditzaten laguntza eman eta emaitzak ebaluatu.<br>(6) Ikastola 2020 eredua ikertzen jarraitu (Ikastola liburutegia, Ikastola historia, Ikastola marka, egoera azterketa, gizarte beharrak, legeak eta gisa eragile exogenoak, izaera, helburuak, baliabideak, gestio mota, prozesuak), IKASTOLA ereduari buruzko kontraste etengabea egin, gure lurralde-eremutik at dauden erakundeekin harremanak ezarri eta ikasketa eta hobekuntza jarduerak burutzea elkarrekin. |

| | |
|---|---|
| (7) En general, <u>concretar el proyecto educativo común</u>: Proyecto educativo, proyectos transversales (Hizpro, IKT, Materiales, Formación, Evaluación), los proyectos que se desarrollan a través de las áreas curriculares y de las actividades extraescolares (Idiomas/Literatura, Ciencias y salud/ tecnologia, Musica/Danza, Artes plásticas/Creatividad, Xiba/ Educación física, Ciencias Sociales, Ocio, Bertsolaritza, Tratamiento de la diversidad, Convivencia...), Titularidad + Proyecto educativo, Gobierno + proyecto de funcionamiento, proyecto de comunicación interna y externa, proyecto Xiba, Tiempo libre, Financiación, Mapa Ikastola + proyecto de dimensión, edificios, proyecto de infraestructura e instalaciones, transporte, comedor y demás proyectos, proyectos de relaciones laborales.<br>1.3 <u>Reforzar el concepto de *Euskal eskola*</u><br>(1) Realizar un diseño actualizado de Euskal eskola.<br>(2) Diseñar e impulsar una alternativa al modelo actual público/estatal/administrativo, basado en el concepto de servicio público de educación.<br>(3) Discutir el diseño entre los agentes educativos.<br>(4) Impulsar el diseño entre los agentes políticos y sociales.<br><br>**2. Recursos de Curriculum (servicios).**<br>2.1. En el curriculum común de las Ikastolas, <u>los servicios educativos que les corresponden a las finalidades educativas</u><br>(1) Adoptar las medidas, dimanizar y garantizar que cada ikastola defina y acuerde el perfil de salida de los alumnos en la educación básica<br>(2) Ayudar en la consecución del perfil de salida de los alumnos.<br>(3) Adoptar las medidas, dimanizar y garantizar que cada ikastola defina y acuerde el perfil los profesores en la educación básica.<br>(4) Diseñar y ejecutar el plan de formación según el perfil del profesorado.<br>2.2. En el curriculum común de las Ikastolas, <u>los servicios educativos que les corresponden a las competencias básicas</u><br>(1) Basado en la propuesta del proceso metadisciplinar para el desarrollo de las competencias generales, servicio de formación para los creadores de material educativo y profesorado de ikastolas.<br>(2) Ofrecer servicio para el desarrollo de las competencias generales:<br>(2.1.) Aprender a pensar y a aprender<br>(2.2.) Aprender a comunicar: Hizpro, IKT, Bertsolaritza.<br>(2.3.) Aprender a vivir juntos: proyecto de convivencia, Proyecto de diversidad (HPB, inmigrantes).<br>(2.4.) Aprender a ser uno mismo: Inteligencia emocional<br>(2.5.) Aprender a hacer y a emprender : emprendizaje<br>(3) Servicio de evaluación de logros referentes a las competencias básicas (generales y específicas) del alumnado | (7) Oro har, <u>hezkuntza-proiektu komuna zehaztea</u>: Curriculum Proiektua, Zeharkako proiektuak (Hizpro, IKT, Materialgintza, Prestakuntza,Ebaluazioa), Ikas arloen bidez eta eskola-orduz kanpoko ekintzen bitartez garatzen diren proiektuak (Hizkuntza/Literatura, (Zientzia eta Osasuna/Teknologia, Musika/Dantza, Arte plastikoak/Sorkuntza, Xiba/Gorputz hezkuntza, Gizarte Zientziak, Aisialdia, Bertsolaritza, Aniztasun trataera, Elkar bizitza …), Titularitate + Kooperatiba Proiektua, Gobernu + funtzionamendu Proiektua, Barne eta kanpo komunikazio Proiektua, Xiba Proiektua, Aisialdia Proiektua, Finantzazioa Proiektua, Ikastola mapa + dimentsio Proiektua, Ikastola eraikin, azpiegitura eta instalazioen Proiektua, Garraio, Jantoki eta bestelako zerbitzuen Proiektua, Lan harremanen Proiektua.<br>1.3 <u>*Euskal eskola* kontzeptua indartzea</u>.<br>(1) Euskal eskolaren diseinu eguneratua egitea.<br>(2) Egungo eredu publiko/estatal/administratibisaren alternatiba diseinatzea eta bultzatzea, hezkuntzaren herri zerbitzuaren kontzeptuan oinarrituta.<br>(3) Diseinua eztabaidatzea hezkuntza-eragileen artean.<br>(4) Diseinua sustatzea eragile politiko eta sozialen artean.<br><br>**2. Curriculum baliabideak (zerbitzuak).**<br>2.1.Ikastolen oinarrizko curriculum komunean, <u>hezkuntza-xedeei dagozkien hezkuntza-zerbitzuak</u>.<br>(1) Oinarrizko Hezkuntza aldirako <u>ikasleen irteera-profila</u> ikastola bakoitzak definitu eta adostu dezan neurriak hartu, dinamizatu eta ziurtatu.<br>(2) Ikasleen irteera-profila lortzen lagundu.<br>(3) Oinarrizko Hezkuntza aldirako <u>irakasleen profila</u> ikastola bakoitzak definitu eta adostu dezan neurriak hartu, dinamizatu eta ziurtatu.<br>(4) Irakasleen profilaren araberako prestakuntza-plana prestatu eta gauzatu.<br>2.2. Ikastolen oinarrizko curriculum komunean, <u>oinarrizko konpetentziei dagozkien hezkuntza-zerbitzuak</u>.<br>(1) Oinarrizko konpetentzia orokorrak garatzeko prozedura metadiziplinarren proposamenean oinarrituz, ikasmaterialen egileen eta ikastoletako irakasleen prestakuntza zerbitzua.<br>(2) Oinarrizko konpetentzia orokorrak garatzeko zerbitzuak eskaini:<br>(2.1.) Ikasten eta pentsatzen ikasteko.<br>(2.2.) Komunikatzen ikasteko: Hizpro, IKT, Bertsolaritza.<br>(2.3.) Elkarrekin bizitzen ikasteko: Elkarbizitza proiektua, Aniztasun proiektua (HPB, etorkinak).<br>(2.4.) Norbera izaten ikasteko: Adimen emozionala<br>(2.5.) Egiten eta ekiten ikasteko: ekintzailetza.<br>(3) Ikasleen oinarrizko konpetentzien (orokorrak eta espezifikoak) lorpenak ebaluatzeko zerbitzua |

<table>
<tr>
<td>
2.3. Servicio de creación de material en relación con el curriculum de las Ikastolas.<br>
*Guias, unidades didácticas, servicio de consultas, actividades de capacitación y profundizaje, material complementario,* en todo tipo de formatos.<br><br>
**3. Recursos organizativos (servicios).**<br>
3.1. Construir y desarrollar infraestructura estabilidad. Diseñar, aceptar y gestionar la infraestructura relacionada con la estabilidad (relativas a la economía-financiación, área de trabajo, préstamos e inversiones) y adecuarlas a las necesidades propias de cada ikastola.<br>
3.2. Crear y fortalecer Ikastolas.<br>
(1) Planificar el mapa de Ikastolas.<br>
(2) Gestionar y renovar la caja de solidaridad.<br>
3.3.Crear la infraestructura para la actividad administrativa de las Ikastolas.<br>
(1) Geográficas<br>
(2) De referencia: cálculos, costes, ratios …<br>
(3) Seguros, proveedores, etc.<br>
3.4. Fortalecer la estructura organizativa del movimiento de Ikastolas.<br>
(1) Poner en la misma senda los modelos organizativos de las Ikastolas y del propio colectivo.<br>
(2) Fortalecer la estructura de gobierno y funcionamiento de la nueva Organización de ikastolas.<br>
(3) Fortalecer y unificar el soporte comunicativo interno (revista, iktb, web,...) de Ikastolen Elkartea<br>
(4) Unificar la política de los trabajadores ene l seno de los órganos de la nueva Organización de ikastolas.<br>
(5) Impulsar la profesionalización y la integración de los profesionales del movimiento de Ikastolas.<br>
3.5. Ayudar a las Ikastolas a integrarse en su entorno. Ofrecer modelos a las Ikastolas para lograr su expansión y hacerlas más accesibles.<br>
(1) Desarrollar y fortalecer espacios para el euskera, junto con otros agentes sociales e instituciones.<br>
(2) Diseñar modelos de inter-acción con el entorno.<br>
3.6. Dar a conocer a las Ikastolas en foros internacionales. Renovar e impulsar la colaboración con las entidades relacionadas con las Ikastolas.<br>
(1) Representar el movimiento de las Ikastolas (comunicación interna y externa).<br>
(2) Establecer lazos con el fin de aprender y mejorar en colaboración con aquellas entidades de diferentes naciones que o bien tienen un idioma propio o aspiran a tener un sistema educativo propio, sobre todo en la Comunidad Europea,<br>
(3) Tomar parte activa en aquellas entidades que impulsan el desarrollo del euskera y de la educación euskaldun (Kontseilua, Euskal Unibertsitatea).
</td>
<td>
2.3. Ikastolen curriculumaren araberako material ekoizpen-zerbitzua.<br>
*Gidak, Unitate didaktikoak, Kontsulta gunea, Trebatze/sakontze jarduerak, Material osagarriak,* euskarri mota guztietan.<br><br>
**3. Antolaketa baliabideak (zerbitzuak).**<br>
3.1.Egonkortasun baliabideak eraiki eta garatzea. Ikastolen egonkortasun baliabideak (ekonomia-finantzazio arlokoak, lan arlokoak, mailegu eta inbertsio arlokoak) diseinatu, onetsi eta kudeatu, eta haietatik beharra duen ikastola bakoitzari egokitzea.<br>
3.2. Ikastola berriak sortzea eta sendotzea.<br>
(1) Ikastolen eskola-mapa planifikatzea.<br>
(2) Elkartasun-kutxa berritu eta kudeatzea.<br>
3.3. Ikastolen administraziorako baliabideak eraikitzea.<br>
(1) Geografikoak<br>
(2) Erreferentziazkoak: kalkuluak, kosteak, ratioak …<br>
(3) Aseguruak, hornidurak eta gisakoak.<br>
3.4. Ikastola mugimenduaren antolaketa-egitura sendotzea.<br>
(1) Ikastoletako antolaketa-ereduak eta kolektiboarenak ildo berean ipintzea.<br>
(2) Ikastolen Elkarte berrituaren gobernu eta funtzionamendu egitura sendotzea.<br>
(3) Ikastolen Elkartearen barne komunikazioaren euskarriak (aldizkaria, iktb, web …) bateratzea eta indartzea.<br>
(4) Langile-politikak bateratzea Ikastolen Elkarte berriaren organoen barruan<br>
(5) Ikastola-mugimenduko pertsonen profesionalizazioa eta mugimenduaren kulturan integrazioa bultzatzea.<br>
3.5. Ikastolak ingurunean txertatzen laguntzea. Ikastola bere ingurunera zabaltzeko eta hartzaileago egiteko bidea emango duten ereduak eskaintzea.<br>
(1) Euskararentzako espazioak garatzea eta indartzea, beste gizarte-erakundeekin eta instituzioekin batera.<br>
(2) Ingurunearekiko elkarreragin-ereduak diseinatzea<br>
3.6. Ikastola nazioarteko foroetan ezagutaraztea. Ikastolen inguruko erakundeekiko harreman eta lankidetza markoa biziberritzea.<br>
(1) Ikastola mugimendua ordezkatzea (kanpo eta barne komunikazioa).<br>
(2) Berariazko hizkuntza duten edota hezkuntza-sistema propioa izan nahi duten Herri eta Nazioetako erakundeekin harremanak egin, Europar Batasunaren eremuan bereziki, ikasteko eta hobetzeko elkar lanak burutzeko.<br>
(3) Euskara eta euskaldun hezkuntzaren garapena sustatzen duten gizarte-erakundeetan (Kontseilua, Euskal Unibertsitatea) eta Instituzioetan aktiboki esku hartzea.
</td>
</tr>
</table>

| ANEXO III | III. ERANSKINA |
|---|---|
| **CONCRECIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE LA NUEVA ORGANIZACIÓN DE IKASTOLAS** | **IKASTOLEN ELKARTE BERRIAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN ZEHAZTAPENA** |
| ***II PLAN INTEGRALA (concreción)*** | ***II. PLAN INTEGRALA (zehaztapena)*** |
| Se presentará y explicará en la 3ª sesión del VI Congreso de Ikastolas, el 13 de junio de 2009. | 2009ko ekainaren 13an, Ikastolen VI. Batzarraren 3. saioan aurkeztu eta adieraziko da |

| ANEXO IV | IV. ERANSKINA |
| --- | --- |
| ESTRUCTURA INTERNA<br>DE LA NUEVA ORGANIZACIÓN DE IKASTOLAS | IKASTOLEN ELKARTE BERRIAREN<br>BARNE ANTOLAKETA |
| ***ORGANIGRAMA***<br>***(Borrador)*** | ***ORGANIGRAMA***<br>***(Zirriborroa)*** |
| 14-05-2009. | 2009-05-14 |

| DIRECCION | ZUZENDARITZA |
|---|---|
| **Nivel de responsabilidad**:<br>Está bajo la responsabilidad directa del Organo de Gobierno,<br>y es el órgano colegiado responsable de la gestión funcional de Ikastolen Elkartea. | **Ardura-maila**:<br>Gobernu Batzordearen menpeko zuzena da,<br>eta Ikastolen Elkartearen kudeaketa funtzionalaren ardura duen organo kolegiatua da. |
| **Miembros**:<br>(1) Director de Ikastolen Elkartea, responsable del área I+D+I, responsable del área de recursos de Curriculum y responsable del área de recursos organizativos.<br>(2) Responsable de estabilidad de los diferentes territorios/administraciones (NIE y Seaska).<br>(3) En las reuniones de dirección tomarán parte el secretario técnico y el administrador de Ikastolen Elkartea | **Kideak**:<br>(1) Ikastolen Elkartearen Zuzendaria, I+G+B Sailaren Arduraduna, Curriculum Baliabideen Sailaren Arduraduna eta Antolaketa baliabideen Sailaren Arduraduna.<br>(2) Lurralde/administrazio esparru desberdinetako egonkortasun Arduradunak (NIE eta Seaska).<br>(3) Zuzendaritzaren bilkuretan Ikastolen Elkartearen Idazkari tekniko nagusiak eta Administrariak esku hartuko dute. |
| **Director:**<br>(1) El director es el máximo responsable del funcionamiento de IE ante el órgano de gobierno depende directamente de éste.<br>(2) Están bajo su responsabilidad (directa o indirecta) todos los profesionales de IE.<br>(3) Su función consta en dinamizar, coordinar e impulsar IE, de tal forma que movilizará los recursos humanos y gestionará los recursos materiales, con el objetivo de lograr los fines establecidos en el II Plan Integral garantizando una organización funcional coherente.<br>(4) Su cometido principale es fortalecer el modelo Ikastola; dirigir las actividades I+D+I; evaluar aquellos escenarios que en un futuro pudieran incidir en las Ikastolas; ofrecer a las ikastolas los servicios que sean responsabilidad de IE. En cada momento; velar por la sostenibilidad común de las Ikastolas; organizar la estructura de gobierno y funcionamiento de IE; planificar las relaciones externas de IE y gestionar IE como empresa que es. | **Zuzendaria.**<br>(1) Zuzendaria da IE-ren funtzionamendu osoaren erantzule nagusia Gobernu Batzordearen aurrean. Honen menpeko zuzena da.<br>(2) Bere menpean ditu, zuzenean edota zeharka, IE-n lan egiten duten profesional guztiak.<br>(3) Bere eginkizuna IE dinamizatzea, koordinatzea eta eragitea da, hartara, giza baliabideak mobilizatuko ditu eta baliabide materialak kudeatuko ditu, II. Plan Integralean ezarritako helburuak lortze aldera eta antolaketa funtzional koherentea ziurtatuz.<br>(4) Bere egiteko nagusiak, ondoko hauek dira: Ikastola eredua indartzea; I+G+B jarduerak gidatzea; Ikastolen etorkizunean eragin dezaketen eszenarioak ebaluatzea; IE-ren unean uneko erantzukizun diren zerbitzuak ikastolei eskaintzea; Ikastolen egonkortasun komuna sostengatzea; IE-ren gobernu eta funtzionamendu egitura antolatzea; IE-ren kanpo harremanak planifikatzea eta IE enpresa lez kudeatzea. |

| AREA I+D+I | I+G+B Saila |
|---|---|
| **Nivel de responsabilidad**:<br>Está bajo la responsabilidad directa de la Dirección,<br>y es el órgano colegiado responsable de velar y fortalecer el modelo IKASTOLA.<br><br>**Miembros**:<br>(1) Responsable del área I+D+I, responsable del área de recursos curriculares y responsable del área de recursos organizativos.<br>(2) Jefes-as de los proyectos de Idiomas, IKT, formación y evaluación.<br>(3) Tomará parte en las reuniones el/la director-a de IE.<br><br>**Responsable de I+D+I.**<br>(1) Es el/la máximo-a responsable ante la Dirección, de las actividades referentes al modelo de IKASTOLA en cuanto a investigación, desarrollo e innovación. Depende directamente de la Dirección.<br>(2) Están bajo su responsabilidad los profesionales de los proyectos que coordina y aglutina.<br>(3) Su quehacer consta en ejecutar a través del área I+D+I la misión de IE, de tal forma que moviliza los recursos humanos y materiales de I+D+I, con el fin de lograr la consecución de objetivos marcados en el II Plan Integral y garantizar una organización funcional coherente.<br>(4) Su cometido principal, por delegación del director-a, consiste en dirigir las actividades I+D+I y como consecuencia llevar a cabo la construcción del material general del modelo IKASTOLA (marcar, diseñar, crear, experimentar, editar, utilizar, aconsejar, formar, contrastar, valorar y mejorar) en todos los proyectos así como en las áreas que conforman dichos proyectos; analizar los escenarios disponibles de pactos y leyes; velar por la coherencia entre los trabajos realizados por el área de desarrollo del Curriculum y el modelo IKASTOLA; velar por la coherencia entre el área organizativa y el modelo IKASTOLA; y velar por la coherencia entre la gestión empresarial de IE y el modelo IKASTOLA.<br>(5) Tomará parte en las reuniones del área de curriculum y del área organizativa.<br><br>**Organización grupal del área I+D+I**<br>(1) Bajo la supervisión de dicha área realizarán su trabajo varios grupos, tantos como los proyectos principales que forman el modelo IKASTOLA.<br>(2) De los hipotéticos grupos que se formarán serán fijos los siguientes: El lingüístico, el de IKT, el de formación y el de evaluación.<br>(3) En todos los grupos de trabajo tomará parte el responsable del área I+D+I. | **Ardura-maila**:<br>Zuzendaritzaren menpeko zuzena da,<br>eta IKASTOLA ereduaren zaintzea eta indartzearen ardura duen organo kolegiatua da.<br><br>**Kideak**:<br>(1) I+G+B Sailaren Arduraduna, Curriculum baliabideen Sailaren Arduraduna eta Antolaketa baliabideen Sailaren Arduraduna.<br>(2) Hizkuntza, IKT, Prestakuntza eta Ebaluazio Proiektuen buruak.<br>(3) Sailaren bilkuretan IE-ren Zuzendariak esku hartuko du.<br><br>**I+G+B Sailaren Arduraduna.**<br>(1) I+G+B sailaren arduraduna da IKASTOLA ereduaren ikerketa, garapen eta berrikuntza jarduera guztien erantzule nagusia Zuzendaritzaren aurrean. Honen menpeko zuzena da.<br>(2) Bere menpeko ditu berak koordinatu eta bateratzen dituen proiektu eta proiektu ataletako profesionalak.<br>(3) Bere eginkizuna IEren misioa I+G+B sailaren bidez gauzatzea da, hartara, I+G+B saileko giza baliabideak mobilizatuko ditu eta baliabide materialak kudeatuko ditu, II. Plan Integralean ezarritako helburuak lortze aldera eta antolaketa funtzional koherentea ziurtatuz.<br>(4) Bere egiteko nagusia, Zuzendariaren delegazioaz, I+G+B jarduerak gidatzea da eta honen ondorioz Sailean IKASTOLA ereduaren araberako material orokorrak eraikitzea (markatu, diseinatu, sortu, esperimentatu, editatu, erabili, aholkatu, prestatu, kontrastatu, baloratu eta hobetu) eredua osatzen duten proiektu eta proiektu atal guztietan; Itun eta legeek eskain ditzaketen eszenatokiak aztertzea; Curriculum garapen Saileko lanak eta IKASTOLA ereduaren arteko koherentzia zaintzea; Antolatea Sailaren lanak eta IKASTOLA ereduaren arteko koherentzia zaintzea; eta IEren enpresa-kudeaketaren eta IKASTOLA ereduaren arteko koherentzia zaintzea.<br>(5) Curriculum baliabideen Sailaren eta Antolaketa baliabideen Sailaren bilkuretan esku hartuko du.<br><br>**I+G+B Sailaren talde antolaketa**.<br>(1) Sailaren esanetara hainbat lan taldek jardungo dute, IKASTOLA eredua osatzen duten proiektu nagusi adina taldek, alegia.<br>(2) Balizko taldeetatik ondokoak finkoak izango dira: Hizkuntz Taldea, IKT Taldea, Prestakuntza Taldea eta Ebaluazio Taldea.<br>(3) Lan talde guztietan I+G+B sailaren arduradunak esku hartuko du. |

| Area de recursos curriculares | Curriculum baliabideen Saila |
|---|---|
| **Nivel de responsabilidad**:<br>Está bajo la responsabilidad directa del director-a y es el órgano colegiado responsable de que el material curricular se desarrolle y gestione según el modelo IKASTOLA. | **Ardura-maila**:<br>Zuzendaritzaren menpeko zuzena da, eta IKASTOLA eredua curriculum materialetan garatzearen eta kudeatzearen ardura duen organo kolegiatua da. |
| **Miembros**:<br>(1) Responsable del área de recursos de Curriculum, jefe-a del desarrollo curricular y de la producción de material.<br>(2) Jefes-as de los proyectos de Idiomas, IKT, Formación y Evaluación.<br>(3) En las reuniones de sección tomará parte el-la responsable del área I+D+I | **Kideak**:<br>(1) Curriculum baliabideen Sailaren Arduraduna, Curriculum garapeneko burua eta Curriculum material ekoizpenaren burua.<br>(2) Hizkuntza, IKT, Prestakuntza eta Ebaluazio Proiektuen buruak.<br>(3) Sailaren bilkuretan I+G+B Sailaren arduradunak esku hartuko du. |
| **Responsable del Área de recursos curriculares.**<br>(1) Es el/la máximo-a responsable ante la Dirección, de las actividades referentes al modelo de IKASTOLA en cuanto al nivel de concreción del curriculum y responsable directo de todo el material. Depende directamente de Dirección.<br>(2) Se encuentran bajo su mando el/la jefe-a del área de desarrolo curricular y el/la jefe-a de producción de material.<br>(3) Su quehacer consiste en llevar a cabo el cumplimiento de la misión de IE a través del área de recursos curriculares movilizanado los recursos humanos y gestionando los recursos materiales correspondientes a su área, con el fin de lograr los objetivos marcados en el II Plan Integral garantizando una organización funcional coherente.<br>(4) Su cometido principal, por delegación del Director-a, consiste en guiar las actividades correspondientes a los recursos curriculares y consecuentemente crear (marcar, diseñar, crear, experimentar, editar, utilizar, asesorar, formar, contrastar, valorar y mejorar) el material curricular según el modelo IKASTOLA, reflejando en el mismo todos los elementos que componen los proyectos y subproyectos de dicho modelo y cuidando que sean coherentes con las decisiones del área de I+D+i.<br>(5) Tomará parte en las reuniones de I+D+I. | **Curriculum baliabideen Sailaren Arduraduna.**<br>(1) Curriculum baliabideen Sailaren arduraduna da IKASTOLA ereduari dagokion curriculum zehaztapen maila eta material guztien erantzule nagusia Zuzendaritzaren aurrean. Honen menpeko zuzena da.<br>(2) Bere menpeko ditu berak koordinatu eta bateratzen dituen curriculum garapeneko burua eta Material ekoizpenaren burua.<br>(3) Bere eginkizuna IEren misioa Curriculum baliabideen sailaren bidez gauzatzea da, hartara, Curriculum baliabideen saileko giza baliabideak mobilizatuko ditu eta baliabide materialak kudeatuko ditu, II. Plan Integralean ezarritako helburuak lortze aldera eta antolaketa funtzional koherentea ziurtatuz.<br>(4) Bere egiteko nagusia, Zuzendariaren delegazioaz, Curriculum baliabideei dagozkien jarduerak gidatzea da eta honen ondorioz Sailean IKASTOLA ereduaren araberako curriculum materialak eraikitzea (markatu, diseinatu, sortu, esperimentatu, editatu, erabili, aholkatu, prestatu, kontrastatu, baloratu eta hobetu), eredua osatzen duten proiektu eta proiektu atal guztiak haietan islatuz eta I+G+B Saileko erabakiekiko koherentzia zainduz.<br>(5) I+G+B Sailaren bilkuretan esku hartuko du. |
| **Organización grupal del área de desarrollo de Curriculum**.<br>(1) Bajo las órdenes de dicha área se encuentran principalmente dos grupos (que a su vez constan de subgrupos): los del desarrollo curricular y los de creación de material.<br>(2) En los dos grupos principales tomará parte el responsable del área de recursos de Curriculum. | **Curriculum Garapen Sailaren talde antolaketa**.<br>(1) Sailaren esanetara bi lan talde nagusik (azpi multzoak dituztenak) jardungo dute: Curriculum garapenekoa eta Material ekoizpenekoa.<br>(2) Bi lan talde nagusietan Curriculum baliabideen sailaren arduradunak esku hartuko du. |

# Area de los recursos organizativos

**Nivel de responsabilidad**:
Está bajo la responsabilidad directa de la Dirección, y es el órgano colegiado responsable de la gestión de la estabilidad/adminsitración y organización/representación del modelo IKASTOLA, y de su desarrollo en los materiales del área.

**Miembros**:
(1) Responsable del área de organización, jefes-as de establidad/administración y organización/representación.
(2) Jefes-as de los Proyectos de Idiomas, IKT, Formación y Evaluación.
(3) En las reuniones de sección tomará parte el-la responsable del área I+D+I

**Responsable del área de organización.**
(1) Es el/la máximo-a responsable ante la Dirección, de las actividades referentes al modelo de IKASTOLA en cuanto estabilidad/administración y organización/representación colectiva y responsable de todo el material relacionado. Depende directamente de Dirección.
(2) Se encuentran bajo su mando los-as jefes-as de estabilidad/administración y organización/representación, que coordina y aglutina.
(3) Su quehacer consiste en llevar a cabo el cumplimiento de la misión de IE a través de la organización, de tal manera que movilizará los recursos humanos correspondientes a la organización y gestionará los recursos materiales con el fin de lograr los objetivos marcados en el II Plan Integral garantizando una organización funcional coherente.
(4) Su principal cometido, por delegación del/laDirector-a, es guiar y gestionar las actividades referentes a los recursos organizativos y crear en dicha área los materiales según el modelo IKASTOLA (marcar, diseñar, crear, experimentar, editar, utilizar, asesorar, formar, contrastar, valorar y mejorar), reflejándose en los proyectos y sus áreas y velando por la coherencia con las decisiones adoptadas en el área de I+D+I.
(5) Tomará parte en las reuniones de I+D+I .

**Organización grupal del área de organización y representación**.
(1) Bajo las órdenes de dicha área se encuentran principalmente dos grupos (que a su vez constan de subgrupos): estabilidad/adminstración y organización/representación.
(2) En los dos grupos principales tomará parte el responsable del área de recursos.

# Antolaketa baliabideen Saila

**Ardura-maila**:
Zuzendaritzaren menpeko zuzena da, eta IKASTOLA ereduaren egonkortasun/administrazioa eta eraketa/ordezkaritza kudeatzearen eta materialetan garatzearen ardura duen organo kolegiatua da.

**Kideak**:
(1) Antolaketa baliabideen Arduraduna, Egonkortasun/Administrazioaren burua eta Eraketa/Ordezkaritzaren burua.
(2) Hizkuntza, IKT, Prestakuntza eta Ebaluazio Proiektuen buruak.
(3) Sailaren bilkuretan I+G+B Sailaren arduradunak esku hartuko du.

**Antolaketa Sailaren Arduraduna.**
(1) Antolaketa baliabideen Arduraduna da IKASTOLA ereduari dagozkion egonkortasun/administrazio kolektiboa eta eraketa/ordezkaritza kolektiboaren eta honi lotutako material guztien erantzule nagusia Zuzendaritzaren aurrean. Honen menpeko zuzena da.
(2) Bere menpeko ditu berak koordinatu eta bateratzen dituen Egonkortasun/administrazioaren burua eta Eraketa/ordezkaritzaren burua.
(3) Bere eginkizuna IEren misioa Antolaketa baliabideen sailaren bidez gauzatzea da, hartara, Antolaketa baliabideen saileko giza baliabideak mobilizatuko ditu eta baliabide materialak kudeatuko ditu, II. Plan Integralean ezarritako helburuak lortze aldera eta antolaketa funtzional koherentea ziurtatuz.
(4) Bere egiteko nagusia, Zuzendariaren delegazioaz, Antolaketa baliabideen dagozkien jarduerak gidatzea da eta kudeatzea, eta Sailean IKASTOLA ereduaren araberako materialak eraikitzea (markatu, diseinatu, sortu, esperimentatu, editatu, erabili, aholkatu, prestatu, kontrastatu, baloratu eta hobetu), eredua osatzen duten proiektu eta proiektu atal guztiak haietan islatuz eta I+G+B Saileko erabakiekiko koherentzia zainduz.
(5) I+G+B Sailaren bilkuretan esku hartuko du.

**Eraketa eta Ordezkaritza Sailaren talde antolaketa**.
(1) Sailaren esanetara bi lan talde nagusik (azpi multzoak dituztenak) jardungo dute: Egonkortasun/Administrazioaren taldea eta Eraketa/Ordezkaritzaren taldea.
(2) Bi lan taldeetan Antolaketa baliabideen sailaren arduradunak esku hartuko du.

| Administracion | Administraritza |
| --- | --- |
| **Nivel de responsabilidad**:<br>Está bajo la responsabilidad directa de Dirección, y es el órgano colegiado responsable de la adminstración empresarial de Ikastolen Elkartea.<br><br>**Miembros**:<br>(1) Adminstrador-a, Gestor-a de condiciones laborales, Responsable de mantenimiento de instalaciones y edificios y Contable.<br>(2) Jefes-as de proyecto de Idiomas, IKT, Formación y Evaluación.<br>(3) En las reuniones del área de administración tomará parte el/la responsable del área I+D+I<br><br>**Administrador-a:**<br>(1) Es el/la máximo-a responsable ante la Dirección de la adminstración empresarial de Ikastolen Elkartea. Depende directamente de Dirección.<br>(2) Se enceuntran bajo su mando el/la gestor-a de condiciones laborales, el/la responsable de mantenimiento de instalaciones y edificios y el/la contable.<br>(3) Su quehacer consiste en llevar a cabo el cumplimiento de la misión de IE a través de la administración empresarial, de tal manera que movilizará los recursos humanos correspondientes a la administración empresarial y gestionará los recursos materiales con el fin de lograr los objetivos marcados en el II Plan Integral garantizando una organización funcional coherente.<br>(4) Su prinicpal cometido, por delegación del/la Director-a, es guiar las actividades referentes a la adminstración empresarial y como consecuencia gestionará los recursos económicos, materiales y funcionales, velando por la coherencia con las decisiones adoptadas en el área de I+D+I. | **Ardura-maila**:<br>Zuzendaritzaren menpeko zuzena da,<br>eta Ikastolen Elkartearen enpresa-administrazioa kudeatzearen ardura duen organo kolegiatua da.<br><br>**Kideak**:<br>(1) Administraria, Lan baldintzen kudeatzailea, Eraikin eta instalazioen zaintzailea eta Kontularia.<br>(2) Hizkuntza, IKT, Prestakuntza eta Ebaluazio Proiektuen buruak.<br>(3) Administraritzaren bilkuretan I+G+B Sailaren arduradunak esku hartuko du.<br><br>**Administraria:**<br>(1) Administrari da Ikastolen Elkartearen enpresa-administrazioaren erantzule nagusia Zuzendaritzaren aurrean. Honen menpeko zuzena da.<br>(2) Bere menpeko ditu berak koordinatu eta bateratzen dituen Lan baldintzen kudeatzailea, Eraikin eta instalazioen zaintzailea eta Kontularia.<br>(3) Bere eginkizuna IEren misioa enpresa-administrazioaren bidez gauzatzea da, hartara, Enpresa-administrazioaren giza baliabideak mobilizatuko ditu eta baliabide materialak kudeatuko ditu, II. Plan Integralean ezarritako helburuak lortze aldera eta antolaketa funtzional koherentea ziurtatuz.<br>(4) Bere egiteko nagusia, Zuzendariaren delegazioaz, Enpresa-administrazioaren jarduerak gidatzea da eta honen ondorioz Ikastolen Elkartearen baliabide ekonomiko, material eta funtzionalak kudeatuko ditu, I+G+B Saileko erabakiekiko koherentzia zainduz. |

| Secretaría técnica general | Idazkaritza tekniko nagusia |
|---|---|
| **Nivel de responsabilidad**:<br>Está bajo la responsabilidad directa de Dirección, y es el órgano colegiado responsable de la gestión de la organización y comunicación interna de Ikastolen Elkartea.<br><br>**Miembros**:<br>(1) Secretario-a técnico-a, secretario-a técnicoá del área I+D+I , secretario-a técnico-a del área de recursos curriculares y secretario-a técnico-a del área de recursos organizativos.<br>(2) Jefes de los proyectos de Idiomas, IKT, Formación y Evaluación.<br>(3) En las reuniones de la secretaría técnica general tomará parte el responsable del área I+D+I<br><br>**Secretario-a técnico-a general.**<br>(1) Está bajo la responsabilidad directa de la Dirección, y es responsable de la organización y comunicación interna ante éste.<br>(2) Su quehacer consiste en llevar a cabo el cumplimiento de la misión de IE a través de la organización y comunicación interna, de tal manera que gestionará los recursos correspondientes a la organización y comunicación interna, con el fin de lograr los objetivos marcados en el II Plan Integral garantizando una organización funcional coherente.<br>(3) Su prinicpal cometido, por delegación del/la Director-a, es guiar las actividades referentes a la organización y comunicación interna y como consecuencia gestionará los recursos organizativos y de comunicación interna de Ikastolen Elkartea, velando por la coherencia con las decisiones adoptadas en el área de I+D+I. | **Ardura-maila**:<br>Zuzendaritzaren menpeko zuzena da, eta Ikastolen Elkartearen eraketa eta barne komunikazioa kudeatzearen ardura duen organo kolegiatua da.<br><br>**Kideak**:<br>(1) Idazkari teknikoa, I+G+B sailaren idazkaria, Curriculum baliabideen sailaren idazkari teknikoa eta Antolaketa baliabideen sailaren idazkari teknikoa.<br>(2) Hizkuntza, IKT, Prestakuntza eta Ebaluazio Proiektuen buruak.<br>(3) Idazkaritza tekniko nagusiaren bilkuretan I+G+B Sailaren arduradunak esku hartuko du.<br><br>**Idazkari tekniko nagusia.**<br>(1) Idazkari tekniko nagusia da Ikastolen Elkartearen eraketa eta barne komunikazioaren erantzule nagusia Zuzendaritzaren aurrean. Honen menpeko zuzena da.<br>(2) Bere eginkizuna IEren misioa eraketa eta barne komunikazioaren bidez gauzatzea da, hartara, eraketa eta barne komunikazioaren baliabideak kudeatuko ditu, II. Plan Integralean ezarritako helburuak lortze aldera eta antolaketa funtzional koherentea ziurtatuz.<br>(3) Bere egiteko nagusia, Zuzendariaren delegazioaz, eraketa eta barne komunikazioaren jarduerak gidatzea da eta honen ondorioz Ikastolen Elkartearen eraketa eta barne komunikazioaren baliabideak kudeatuko ditu, I+G+B Saileko erabakiekiko koherentzia zainduz. |